ttipi-ttapa

ELIZONDOKO FERIAK / 29

BENETAKO INKLUSIOAREN ALDE

Duela 14 urte hasi zen Anfas elkartea garapen eta adimen desgaitasunak dituzten eskualdeko haur eta gazteekin lanean. Gaur egun, 0 eta 20 urte bitarteko 70 erabiltzailek parte hartzen dute Anfasek Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan eskaintzen dituen programetan / 10

SINADURAK

KORO IRATZOKI ARBURUA / **3**

AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN / **4**

IZASKUN REKARTE BENGOETXEA / **4**

ZOZKETA / 2

«2022rako dugun helburu nagusia euskal hiztun aktibo gehiago lortzea da»

Alizia Iribarren elizondoarrak urriaren 1ean hartu zuen AEK-ko koordinatzaile nagusiaren kargua. AEKn orain arte egin duen ibilbideaz eta etorkizuneko erronkez solastatu da TTIPI-TTAPArekin. / 8

Lurraren Egunaren 33. edizioa urriaren 27an eginen dute Beran / 13

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T **948 63 54 58** | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | **erran.eus**

www.ttipitxartela.info

743 aleko irabazleak >

Irrisarri Land - 2 sarrera
Mikel Mariezkurrena Baleztena | SALDIAS
Astizko lezeak - 2 sarrera
Rosario Arretxea Iraizoz | SUNBILLA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Jaione Sein Petrikorena | IGANTZI
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Mari Jose Etxeberria Agesta | NARBARTE
Onddo ta Punto - Kamiseta bat
Patxi Errandonea Maia | BERA
La Rhune - 2 sarrera
Maritxu Tomasena Mihura | URDAZUBI
Wow Park - 2 sarrera
Esther Eskudero Apezetxea | DONEZTEBE
Elkar - Liburu bat
Igone Oteiza Arretxea | ANIZ
Elkar - Liburu bat
Juanita Bidegarai Etxenike | GARTZAIN

ZOZKETAK

2 sarrera

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

BAZTAN ESCAPE ROOM
www.baztanescaperoom.com

Sarrerak

ZOZKETA

2 sarrera
WOW PARK
http://wowpark.fr

LIBURUAK

- Agur aitona
- ZTIM jarduerak

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

LA GUNTZAI LEAK

www.urtxintxa.eus

www.buatxabal.eu

NIRE TXANDA

KORO IRATZOKI ARBURUA

Armiarma eta halakoak

Leihoaren kanpoko aldean, gortina distiratsu baten gisakoa ikusi nuen. Zer ote zen ? Armiarma sare eder bat. Ez zen apenas ikusten, baina leihoa ia-ia guztiz estaltzen zuen. Bazter batean euli «disekatu» bat zeukan, eta nire baitan: «Hara, hemendik ez zait ez etxe barnera eulirik sartuko». Lehengo azienden ehiak gogora ekarri zizkidan: txoko guztiak armiarma-sarez beteak. Normala, azienden inguruan ibiltzen diren eulien kontra espresak baitziren. Geroztik armiarmak bertze gisara ikusten ditut, ingurumenaren lagungarri bailiran. Ez bada nabarmenki agerian, hor uzten dut armiarma-sarea, eta armiarmari «ez bazara zure xokotik urruntzen, nire etxean utziko zaitut» erraten diot.

«NATURAK ZENBAT DAKIEN ETA GU NATURATIK ZEIN URRUN GAUDEN»

Eta zer erran gure baratzeetan bizi diren apoez? Gehienendako higuingarriak dira, baina zenbat karakol, bare eta barazkiei kalte egiten dieten mamorro ez ote dituzte jaten? Beraz, apo gehiago eta *Limacol* gutiago! Sugeek ere kalte baino aise onura gehiago egiten dituzte, baina zein fama txarra duten... Naturak zenbat dakien eta gu naturatik zein urrun gauden...

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Eskol-Ttikiko arkupetatik

Lesaka maite zuen eta maitasun horren ondorioz, bere historia ezagutzea eta ezagutzera ematea gustatzen zitzaion, bisita gidatuetan laguntzea… Bere irakasgaien artean bat bereziki gogoan iltzatu zitzaidan: Eskol-Ttikiko ataritik begiratuta, mugitu gabe, XV.etik XXI.era, zazpi mendeetako etxeren bat ikus daiteke. Pasatzen garen aldiro gogoan izanen dugu Rafael!

NABARMENTZEKOAK

ANITA AIERDI
LEITZAKO AIZKOLARIA

83 urterekin sasoiko dagoela erakutsi du Anita Aierdi leitzarrak. 1988an Leitzan egin zen aizkora saio handi hartan egin bezala, urriaren 5ean ospatu zen Aurrera Egunean aizkoran aritu zen.

JON REKONDO
LEITZAKO AIZKOLARIA

Euskal Herriko lehen mailako aizkolarien txapelketan ariko den eskualdeko aizkolari bakarra izanen da leitzarra. Finala urriaren 27an Gasteizen jokatuko da.

ATZERA BEGIRA

2009-10-15 · TTIPI-TTAPA · 504 zk.

Jon Lekuberria zaldun lesakarra

Zaldien doma klasikoan aritzen zen Jon Lekuberria lesakarrari egindako elkarrizketa argitaratu zuen duela hamar urte Ttipi-Ttapak. Toledon (Espainia) bizi zen orduan eta egunero zaldiekin entrenamenduak egiten zituela azaldu zuen: «zaldi bakoitzarekin egunero 45 minutu edo ordu eta erdira pasatzen ditugu. Lau lagun gara eta 28 zaldi ditugu gure hipika zentroan». Zaldiaren oreka fisikoa eta psikikoa bilatzearen garrantziaz ere aritu zen: «zaldiaren inguru naturala ez da ixtegia, mendia da, eta nik, nolabait ere, falta zaion askatasun hori eskaini behar diot». Horrez gain, «zaldiaren berezko portaera» lantzea gustatzen zitzaiola ere aitortu zuen, «eta ez robot batean bihurtu, azken finean zaldiak dira».

ttipi-ttapa
erran.eus
TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkartea

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobierno de Navarra
mecna
BAZTANGO euskara
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Herri ttikiak

Iruñeko auzo bateko ostatu batean nintzen, denbora-pasa kafea hartzen, eta gizon bat nuen parean, hura ere bakarrik, bazkari partea egiten; harekin solasean hasi nintzen, edo hura nirekin, denbora-pasa. Betiko galde-erantzunak, eguraldiari edo biztua zen telebistak zekarzkien albisteei buruzkoak, nongoak ginen, zerk ekarri gintuen hara. Espainia aldekoa bera, Iruñera lanera etorria; Nafarroa iparraldeko herri ttiki batean bizi nintzela erran nion nik; orain Iruñean karrera akaberako praktiketan nagoela-eta joan-etorria egiten dudala. Badakidala ez dela hagitz ekologikoa, baina… Harriturik bera; nola den posible gazte batek nahiago izatea 3.000 biztanlera ailegatzen ez den herri batean bizi hiriburuan baino. Eta nik, berriz, gustura nagoela.

Herri ttikien alde txarrak zerrendatzen hasi zitzaidan. Solas egiten dela sobera bertzeen kontuez; eta, beraz, bertzeek norberaz ere. Ezin duzula nahi duzuna egin bertzeen ahotan egon gabe. Bestazale eta neskazale fama duela hark herrian, eta nahiago izan zuela alde egin. Nazkatua.

Egia da. Ni herrian bizi naizenetik eta autoa errepide nagusitik argi ikusten den leku batean aparkatzen dudanetik astero entzun behar izan ditut «Gaur ez zenuen lanik?», «Aste honetan guti egon zara etxean» eta halako iruzkinak. Kontrola izugarrizkoa da. Eta ez nituzke jakin nahi nire gibeletik erran dituztenak. Zer erranik ez neroni ere egiten ikasten hasi naizen txutxu-mutxuak: hura eta bertze honekin ikusi dutela; baina bikotea dutela; are, umeak.

«TXUTXUMUTXUEI PASO EGINEZ GERO, ALDE ON UGARI DITUZTE HERRI TTIKIEK»

Baina horiei paso egiteko aukera eta gaitasuna izanez gero bertze alde on ugari ere badituzte herri ttikiek. Libre ditudan goiz edo arratsaldeetan erosketak egitera ateratzea gustatzen zait herriko dendetara; bi solas gurutzatzea dendariarekin –denda erraldoi horietan egin ezin diren gauzak–. Ostatura joatea jakin gabe nor egonen den eta halere jakitea segur izanen duzula norbait ezaguna mintzatzeko nahi izanez gero. Karrikatik ibili eta agurrak gurutzatzea jendearekin. Eta, arnasgune ditugun gure herriotan, nola ez –eta anitzetan baloratzea ahanzten zaigun arren–, ia edozeinekin euskaraz aritzeko aukera.

Burutik pasatu zitzaizkidan horiek guztiak, baina ez nuen jakin azaltzen Iruñeko auzo bateko ostatu batean topatu nuen Espainia aldeko gizon hari. Hurrengoan aurkitzen badut, ea konbentzitzen dudan.

IZASKUN REKARTE BENGOETXEA

XX. mendeko emakume kirolari profesionalak

Historiari erreparatuz, antzina pilotalekuak gizonezkoen leku izan dira. Hainbat egilek erakutsi bezala (E.E, 2013), XIX. mendearen amaieran, ordea, emakumea pilotaren munduan barneratzen hasia zen, hau profesionalizatzeko porrot egindako saiakera eman zelarik. Jose Maria Urrutiak jaso moduan, huts egindako saiakera hori eta gero sortu zen raketisten modalitatea: 1917an Madrilen hasi eta 1980an desagertu zen.

Protagonistak 15 urtetik gorako emakume kirolari profesionalak ziren, lehenak Euskal Herrikoak, nahiz eta aurrerago, pilotaleku berrien irekierarekin, beste hainbat lekutan ere sortu. Hasiera batean, Espainiar estatuan errotutako modalitatea izan zen, Espainiako testuingurua eta jokoaren arrakasta zela eta, ordea, Atlantikoa gurutzatu eta Kuba edo Mexiko bezalako hiriburuetan ere aritu ziren raketistak (Urrutia, 2009).

Aipatu bezala, XIX. mende amaieran emakume kirolaria profesionalizatzeko saiakerak huts egin zuen eta XX. mende hasieran raketisten fenomenoa abiatu zen. Zehatzago, XIX. mendean gizarteak emakumeen lana gogorki zigortzen zuen, hauen lana, esparru domestikoarekin erlazionatzen zenez, espazio publikoan aritzen ziren emakumeak gaizki ikusirik zeudelako. Are gehiago, gorputza lan tresna bezala erabiltzen zuten ziren gaitzetsienak (dantzari, aktore, kirolari... prostituta zen baztertuena). Garai hartan, gizonen askatasunaren aurrean emakumeei debekatutakoak dira aipagarrienak; moral bikoitza eta hipokrisia bete-betean (Aresti, 2006). Raketisten kasuan kontraesankorrak diren bi ideia ditugu, beharbada, moral bikoitzaren ideiaren arrazoiak direnak. Batetik, raketistaren figurak feminitatearekin bat egiten zuen gonaz jantzi eta raketa bidez (ez zuzenean eskuz) jolasten zelako eta ondorioz, onartua zela pentsa daiteke. Bestetik, emakumea eta ama izatea sinonimo ziren, raketisten bizitza ama izatearekin bateraezina zela pentsa zezakeen gizarteak, eta hortaz, emakume haiek gaitzetsi. Olatz Gonzalez ere moral bikoitzaz mintzo da, ospearekin batera emakumeek jasaten zuten des-plazamenduaz, alegia. Gonzalezek gutxi landu izan den des-plazamendua du aztergai, non emakumeak historikoki gizonen espazioa (plaza, espazio publikoa) dena okupatu izan duenean, onarpena bai eta aldi berean bazterketa jasan izan duen (Gonzalez, 2013).

«GARAIKO EREDU HEGEMONIKOA HAUTSI ZUTEN RAKETISTEK»

Raketisten mundua espazio maskulino batean zegoen arren, erabat femeninoa zen. Hau da, nahiz eta raketistak espazio maskulino batean mugitu (gaua, ospea, dirua, apustuak...) euren papera guztiz femeninoa izango da, euren karrera profesionalak eredu maskulinoaren kontsumora bideratuko baitira. Ondorioz, raketisten fenomenoak genero-sistema erreproduzitzeko balioko du Gonzalezen (1999) arabera. Halere, nire irudiko, garaiko genero harremanak arautzen zituen eredu hegemonikoa hautsi zuten raketistek, gizartean ematen ari ziren aldaketak gorpuztuz.

11 GALDERA LABUR

UNAI URROZ GELBENZU DONEZTEBEKO GAZTEA

«Orozkorock lehiaketa irabaztea sorpresa ederra izan da»



Nor da Unai Urroz?
Doneztebeko musikari gazte bat.
Zer egiten duzu egunerokoan?
Eguneroko eginbeharrak egin eta momentu libreak aprobetxatu: kafe bat hartu, lagunekin egon...
Zein dira zure zaletasunak?
Musika (entzun, gozatu eta jo), futbola ikusi eta sufritu (Osasunazalea) eta ahal denean besta egin.
Musikazale eta musika-jole. Noiz hasi zinen bateria jotzen?
Bederatzi urte nituela. Afizio hori berezkoa dudala erraten didate.
Kurkuma taldeko kidea zara. Noiz eta nola sortu zenuten taldea?
2018ko udaberrian, Josebak eta Enekok esku artean zuten proiektu bat aurkeztu zidaten eta jendea elkartzen hasi ginen. Gaur egun hirurok eta Maitane eta Anderrek osatzen dugu taldea. Bi leitzar, Doneztebeko bi eta eratsundar bat izaki erdi bidean zegoen leku berezi batekoak ginela erratea pentsatu genuen. Hara non, Lozabianen kokatu dugu taldea.
Lehendik ere beste talderen batean ibilia zara...
Bai, aunitz pasatu ditut: Askatu, Sutan, Oharkabe, Estu&Larri... Sutan taldean gaur egun Kurkumako kide dudan Enekoren taldekide izan nintzen. Gaur egun Kurkuma eta Pleura taldeetan jotzen dut.
'Kurkuma' diska kaleratu duzue. Nondik sortu zen ideia?
Kanta on dezente genituen eta horiek argitaratzeko beharra ikusi genuen. Musika rock stoner estiloko kantek osatzen dute diska, erritmo indartsuek osatua. Enekoren ahotsak garrantzia handia du.
Aitzinetik sormen lanik bazenuen?
Bai, Sutan taldearekin maketa bat kaleratu nuen eta Estu&Larrirekin maketa eta *Ero* diska. Aunitz Eskuetan kanta egiten ere aritu nintzen.
Nola izan da sortze-prozesua?
Josebaren eta Enekoren ideiei forma eman diegu lokalean, bakoitzaren ukitua gehituz.
Irailean Orozkorock banden lehiaketa irabazi duzue...
Bai. Erakargarria iruditu, parte hartu eta irabazi. 25 talde inguru aurkeztu ginen eta irabaztea sorpresa ederra izan zen.
Aurrera begira zein dira zuen asmoak?
Musikaz gozatzea eta ahal den heinean horretatik bizitzea.

IRAKURLEAK MINTZO

Kontraesanak

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Gizakiok kontraesan asko izaten ditugu. Ziurtasun gutxi dugunez, iritziz aldatzea ez da harritzekoa. Denok aldatzen dugu gure iritzia baldintzak edota egoerak aldatzen direnean. Adinak, batez ere, pentsaera aldatzea dakar. (...) Ez du zerikusirik umetan edo gaztaroan daukagun pentsaerak, eta helduaroan edo zahartzaroan. Informazioak ere eragin handia dauka bakoitzaren iritzian. Zer irakurri, zer entzun, zer ikusi, zer girotan bizi garen, era bateko edo besteko pentsaera izango dugu. Etengabeko aldaketa baten bizi gara. Zentzu horretan, pertsona bakoitza mundu bat gara.

Gaur egun hainbeste aipatzen den berdintasuna aparte utziz, desberdintasuna da hitz nagusia. Desberdina izatea naturak emandako dohaina da. Neurri handi baten, desberdintasun horrek bizitza interesgarri egiten du (...) Kontraesan guztiekin, baten eta besteen indarrak eta baliabideak batuz, gizarteak aurrerapausoak ematen ditu. Ikerketa zientifikoetan, bakoitzak bere adimena erabiliz, lorpenak egiten dituzte (...) Baina dena ez da positiboa.

Gizakien bizitza kontraesanez beteta dago. Denok mundu hobean bizi nahi dugu, ingurumen garbi batean (...) Baina gure portaera ez doa bat nahi horrekin. Pertsonalki, denok osasunaz gozatu nahi dugu: osasun sistema ona, profesionalik onenak... Baina osasunaren kontrako jokaerak ditugu. Inoiz baino gehiago hitz egiten da elikadurari buruz, baina inoiz baino gizentasun gehiago sumatzen da. Egun, informazio handia dago alkoholak eta drogak eragiten dituzten kalteei buruz. Kontsumitzaile direnei ez ezik, ingurukoei eta, oro har, gizarteari ere egiten diete kalte. Baina zirkulazio-kontrolguneetan, alkohol eta drogen emaitza positiboak gero eta gehiago agertzen dira (...).

Askatasunaren izenean, bakoitzak nahi duena egiten ahal omen du, baina ondorioak kontuan hartzen baditugu askatasun horrek ez du zentzu handirik. Kasu horietan, kontraesanak ez dira erraz ulertzekoak; kaltetuak denak gara.

Politikan ere, ez da falta kontraesanik. Historikoki, astakeria handiak egin eta egiten dira tolerantzia, askatasuna eta berdintasunaren izenean (...) Kasu argia 1789ko Frantziako Iraultza da. Ospe handia izan zuten hiru hitz hauetan oinarritu zituen bere ekintzak: *Égalité, Fraternité, Liberté*. Baina Iparraldeko euskaldunentzat, adibidez, oso ezkorra izan zen. Haren ondorioak pairatzen ari dira gaur egun arte. Frantzia guztian, askatasunaren izenean hizkuntza guztiak desagerrarazi zituzten frantsesaren alde eginez. Gure garaira salto eginez, Euskal Herriko Hegoaldean, herritarren aldetik ere, ez dira falta kontraesanak: teorian, euskara maite dugula esan eta praktikan ez egiaztatu. Geure ikurrina ezagutzen ez duenik ez da egongo, eta ereserkia zein den, berriz, ia inork ez daki. Ikurrina, kolorez, polita den bezala, ereserkiak, musika aldetik, ez dauka zertan inbidiarik izan munduko ereserki onenen aurrean. Estatuen bandera eta ereserkien garrantzia oso erlatiboa da, baina herrialde bakoitzak bereak ez ezagutzea ere, kontraesana da. Hau da gure kasua.

Aldaketaren alde apustu

IULEN LIZASO ALDALUR

Dieta eta Osasunari buruzko Europako Ikerketa Prospektiboan (EPIC), Eusko Jaurlaritzak bigarren faserako gonbidapena egin du: 'Bisfenol-Arekiko esposizioaren eraginak osasunean'. EPICek orain proposatzen du ebaluatzeko zein erlazio dagoen konposatu kimiko baten (bisfenol-A) eta minbizia edo Gaixotasun Koronario Iskemikoa garatzeko arriskuaren artean.

Orain gutxi artikulu batean irakurri dut: «Espainian, nahiz eta botilako litro urak iturrikoak baino 400 eta 1.000 aldiz gehiago balio, Europako laugarren eta munduko seigarren herrialdea gara, ur 'hila' kontsumitzen. Urteko eta pertsonako 140 litro horiek eragiten dute segundotik behin 1.500 plastiko botila zaborretara edo landara botatzea, eduki toxikoekin; bisfenol A (BPA) eta antimonioa, kasu».

EAEn, ahoratzeko ura edangarri egiten dute fluorrarekin. Gainontzeko tokietan sodio hipokloritoarekin (lixiba), Kordoban eta Andorran izan ezik; hauetan, kloro dioxidoarekin (sodio kloritoa-MMS), ura edangarri egiteko disolbagarriagoa eta patogenoak hautatzeko eraginkorragoa dena, eta dosi txikiagoak behar dituenez, gastuak, zaporea eta osasunean onurak hobetzen dituena. Biozida ez kaltegarri hori indartsuagoa da, trihalometano (THM) beldurgarriak eta fenolak ezabatzea bermatzen baitu, eta horregatik erabiltzen da ospitaleetako gela eta tresneria esterilizatzeko.

2008an gobernu britainiarrak iturriko uraren kalitatea hobetu zuen, eta era berean, debekatu egin zuen bulego ofizialetan, jaialdietan eta ekitaldi publikoetan plastikozko botilako ura edatea, kaltegarria, inmorala eta ez solidarioa iritzita. 2013an Frantziak debekatu egin zuen Bisefonol-A plastikozko ur botiletan, petroliotik eratorritako substantzia oso toxikoa delako.

Aurrekari horiekin, Eusko Jaurlaritzak eztabaida publikoa ireki behar luke, ahoratzeko plastikozko ur botilak gutxitzearen alde, eta aurretik, bermatu, etxe eta iturri publikoetan gure uraren zaporea eta osasungarritasuna, gaur egun fluorazioarekin ez baitago bermatuta. Edangarri egiteaz gain, osasungarri eta bizi egitea izan behar litzake bere apustua.

Energia aurreztu eta gutxitu eta Zero Zabor filosofiarekin bat egiten duen ekonomia zirkularraren aldeko zaborren tratamenduari lotutako irizpideengatik ezin dugu atzeratzen utzi plastikoari eta osasunari lotutako iturriko uraren arazoa. 'Ekoetorkizuna: Plastikoari EZ'. Mundu mailako mugarri litzateke, Hernanikoa bezalako Euskal Herriko zenbait udaletxetan ingurumenaren aldeko praktika onen alde, hondakinen gaiari lotuta... Zuzenean eragiten digu.

IRAKURLEAK MINTZO
Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izendeiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

GOITI ETA BEHEITI

Bestaren biharamun gazigozoa

Komuneko atea bere tokitik aterata, kristalak hautsita, komuna izorratuta eta ingurua urez gainezka.... Donezteboko besta ttikien biharamunean halaxe agertu zen Mikelo ostatua. Ez ziren Donezteben egindako kalte bakarrak izan... Ezinegonez zeuden batzuk ez zuten ongi pasatzearekin aski...

Goiti eta beheiti!

Karrikan, mendian, ekitaldiren batean... Edozein tokitan zaudela ere, gustatu edo gustatu ez zaizun zerbait ikusi baduzu, eta hori goraipatu edo salatu nahi baduzu, kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua *info@ttipi.eus* helbidera edo whatsappez 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

BOTA BERTSOA

AXURI ZAPIAIN ARLEGI
BAZTAN-BIDASOKO XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETAN 1. SARIA (11-14 URTE)

Nere bizkotxoa!

Doinua: Agur sagar beltzaran

Lehenengo osagaiak
bildu behar dira
dena bol batin sartu
kutxarari bira
orea molde batin
labera segida
40 minutuz ni
hor nago begira
bizkotxoa poliki
haunditzen ari da.

Komunera noa ni
mobila hartuta
bizkotxoa zeharo
labean ahaztuta
komunetik atera
pixkot izituta
labea ikusita
hori ezin da uka
errea dago eta
hagitz aldatuta.

HEMEROTEKA

«Argazkiak ateratzeko garaia da udazkena: argia hobea da, koloreak, basoko fruituak... (...) Gehiena behe lainoa eta euria gustatzen zaizkit (...) Argazkiak ateratzeko, bakarrik ibili behar da. Bietako bat da: beste norbaitekin joan, edo argazkiak atera (...) [Artikutzara] deskonektatzera joaten naiz: lasai egon, gauzak ikusi, argazkiak atera... Azken urteetan bideoak egiten ere aritzen naiz (...) Orain, beranduago aldatzen dira koloreak [Artikutzan], eguraldia aldatzen ari delako. Lehen, urriaren erditik amaiera aldera hasten ziren aldatzen; orain, azaroaren hasiera-erdian hasten dira».

ANDER OLAIZOLA GOIZUETA I BERRIA. 2019.09.21

«Arantzazun zenbait gai uztartzen dira. Gipuzkoako santutegi nagusia da, baina gogoratu behar da bertan garai batean uztartu zirela arte garaikidearen aldeko apustua, eta euskararekin eta euskal kulturarekin izan zuten konpromisoa (...) Bertan egin zuten obra erreferentziazko hori (...) [Dokumentalaren] emanaldiak eginen ditugu ahalik eta leku gehienetan. Ondoren, USB formatuan banatuko da, jendearengana iristeko formatu egokienetako bat delako».

MIREN MINDEGIA *ARANTZAZU, HARRIZ HERRI* DOKUMENTALEAN GIDOIGILEA I ELIZONDO I BERRIA. 2018.09.26

25 urte inguru daramatza Iribarrenek AEKn lanean. UTZITAKO ARGAZKIA

«Euskaraz bizitzeko herri-gogoak egoera hobetzen lagunduko du»

ALIZIA IRIBARREN ANDUEZA AEK-KO KOORDINATZAILE NAGUSIA

Mertxe Mugikaren eskutik, urriaren 1ean hartu zuen koordinatzaile nagusi kargua Alizia Iribarrenek. Lanean hasia da dagoneneko eta pixkanaka «martxa hartzen» ari da

N. BAZTERRIKA ELIZONDO

Etxean ikusi eta ikasi du Alizia Iribarrenek (Elizondo, 1976) euskara zaintzen eta maitatzen. Elizondon sortu bazen ere, hamar urte zituela, Tuterara joan ziren bizitzera eta hamaika aldaketen artean, hizkuntzarena bizi izan zuen: «ikastetxean eta ikastetxetik kanpo gaztelera zen nagusi». Gaztaroko hizkuntza aldaketen zergatiaz «gerora» jabetu zen arren, eragina izan zuelakoan dago: «euskarak etxean eta inguruan duen desorekak ere bide hori hartzera bultzatu ninduela uste dut». 25 urte inguru daramatza AEKn. Irakasle hasi zuen bidea; Erriberako arduradun izan zen gero; eta Nafarroako koordinatzaile-lanak koordinatzaile nagusiaren egitekoekin ordezkatu ditu berriki.

Noiz hasi zinen AEKn lanean?

18 urte nituenean. Tuteran bertan eta inguruko herrietan klaseak ematen hasi nintzen eta pasa den ikasturtera arte bertan aritu naiz. AEK lehenagotik ezagutzen nuen, Tuterara etorri ginenean ama euskara eskolak ematen hasi baitzen.

«EUSKAL HIZTUN AKTIBO GEHIAGO LORTZEA DUGU HELBURU»

Luzaroan Erriberako AEK-ko arduraduna izan zara.

Bai. Klaseak emateaz gain, 15 bat urtez Erriberako arduraduna eta azken zortzi urteetan Nafarroako AEK-ko koordinatzaile izan naiz. Bertako klaseekin uztartzen nuen lana. Dena dela, aurreko ikasturtean koordinazioan bakarrik zentratu naiz.

Euskalgintzan ari zarenetik, euskararen egoera soziolinguistikoa zertan aldatu da?

«ZONIFIKAZIOAK EUSKARAZ EGITEKO ESKUBIDEA URRATZEN DIGU»

Euskal Herriari dagokionez, egoera soziolinguistikoa eremuz eremu aldakorra da eta aldaketak ere ildo berean izan dira. Halere, ezagutza geroz eta handiagoa dela eta erabilerak ere goranzko joera hartu duela esango nuke. Orokorrean, Euskal Herri osoan, duela 20 urte baino normatasun handiagoz hartzen da euskara. Nafarroari dagokionez, ezagutzak gora egin du. Badira zonalde batzuk belaunaldi batzuk euskaldunak direnak, beste batzutan, oraindik, aurrerapausoak ematen ari da… Urtetik urtera euskaltegietan izena ematen dutenen kopuruak gora egin du; eta beraz, gero eta jende gehiagok daki euskaraz, edo behintzat ikas-prozesuan hasia da. Erabilerari dagokionez, eremu guztian gero eta gehiago erabiltzen dela esango nuke. Duela urte batzuk beherakada sumatu genuen arren, azken zazpi-zortzi urteetan, urtetik urtera, gora egin du.

Normalizazio- eta aktibazio-ekimenak ere nabarmen indartu dira.

Bai, Korrikaren azken edizioak gero eta jendetsuagoak izan dira eta joan den urtean Euskaraldian jende askok parte hartu zuen. Erakustaldi erraldoi horiek gero eta jendetsuagoak izateak euskaraz bizitzeko gogoa edo nahia badela adierazten du.

Beraz, gaur egun egoera onean gaude?

Ez dut esango erabat osasuntsu dagoenik. Hiru eremu administratiboetan, batetik bestera, aldaketa handia da. Erkidegoan nahiko aurreratua dago. Nafarroa eta Iparraldeari dagokionez, aurreko agintaldian aurrerapauso txiki batzuk eman dira. Beti badira hobetzeko alderdiak eta horri begira egingo dugu lan…Ez dugu zonifikazioarekin bukatu eta horrek euskara ikasteko eta erabiltzeko eskubideak urratzen ditu. Alde horretatik nahiko ilun ikusten dugu kontua. Iparraldean ere aurrera egin da, baina ez nahikoa eta

oso poliki. Herri Elkargoa sortu zenean plangintza estrategiko bat egin zuten. Euskarari dagokionez, aurrerapauso bat emateko nahia ikusi genuen. Horretaz gain, Iparraldean ere gero eta jende gehiagok ikasten du euskaraz, bai ikastoletan, baita euskaltegietan ere.

Beraz, egiteko askorekin hartu duzu kargua. Nolatan eman zenuen pausoa?

Mertxe Mugikak utzi zuenez, beste norbait behar zen. Kostata baina animatu egin nintzen. Inguruko jendearen babesa sumatzea lagungarri izan zen. AEKn hori garrantzitsua da, talde bat garelako. Bakoitzak bere funtzioak eta lanak ditu baina guztion artean egiten dugu aurrera. Egia esan, gogotsu, erantzukizunez eta arduraz hartu dut kargua.

Nafarroako koordinatzaile izatetik koordinatzaile nagusi izatera, ikuspegi aldaketa beharko duzu?

Nafarroako koordinatzailea izan naizen heinean, bertako egoera ezagutzen dut. Orain Euskal Herria koordinatu behar dudanez, ezagutza aberastu beharko dut. Momentu honetan ikasten eta martxa hartzen ari naiz eta laguntzarik ez zait falta.

2018-2022 aldi estrategikoan murgilduta zaudete orain. Zein dira aldi horretan dituzuen egitekoak?

2022rako dugun helburu edo lerroburu nagusia euskal hiztun aktibo gehiago lortzea da. Euskara ikasten duten horiek hiztun aktibo bihurtuz erabilerak gora egingo duela eta euskarak aurrera egingo duela iruditzen zaigu. Ezagutzarekin ez da nahikoa eta horri begira jarriko gara.

Euskaraldiaren ondorioz, Nafarroan erabilerak gora egin du nabarmen.

Soziolinguistika Klusterraren arabera, hasierako hilabeteetan 20 puntu inguru igo zen. Baina ondoren ohitura zaharrei heldu genien. Azkenean sei puntutan gelditu da. Igoera hori egonkorra dela ikusi dugu eta horri begiratu behar genioke. Azken batean, ohitura aldaketa sakonak nahi ditugu. Hurrengo Euskaraldira begira sei puntu horiek igotzea eta aldaketaren bidean gelditu diren horiek aldatzea nahi genuke. Ariketa erraldoi horrek ohitura aldaketak posible direla ikusten lagunduko du.

Mertxe Mugikaren eskutik, urriaren 1ean hartu zuen koordinatzaile nagusi kargua Alizia Iribarrenek. UTZITAKO ARGAZKIA

Hizkuntza-politikan ere egitekoak badira...

Hizkuntza-politika eraginkorra nahi badugu administrazioek baliabide gehiago jarri behar dute. Alde batetik, doakotasuna bermatu behar dute, herritar guztiek euskara ikasteko eskubidea izan dezaten. Bestalde, Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna behar dugu.

Doakotasunari dagokionez, zertan da kontua?

Jendeak, orokorrean, esfortzu handia egiten du, eskubidea izan behar lukeen zerbait jasotzeko. Toki batetik bestera alde handia dago. EAEn, momentu honetan, maila batetik bestera pasatu eta klaseetara joanez gero, B2 maila izan arte doan ikas dezakete. Nafarroari dagokionez, Udal eta Mankomunitate batzuek, Baztangoak, Bortzirietakoak eta Malerrekakoak esaterako, dirulaguntza ematen dute. Pasa den urtean Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ere eman zituen, baina ez zuten inondik inora doakotasuna bermatu. Iparraldeari dagokionez ere ikasle batzuek eta maila batzuetan jasotzen dute, baina ez da nahikoa.

Aurreko agintaldian aurrerapauso batzuk eman zirela aipatu duzu. Zertan egin da aurrera?

Aurretik dirulaguntzetan egin zituzten murrizketei aurre egin zitzaien, euskaltegiei ematen zaizkigun laguntzak berreskuratu ziren eta poliki-poliki partida igotzen joan da. Ez da gure lana ordaintzeko adina... baina tira! Administrazioa euskalduntzeko Foru Dekretu bat ere martxan jarri zuten.

Gobernu aldaketarekin zer espero duzue?

Gobernua osatu aurretik egin zuten hitzarmena irakurrita, atzera ez dela egingo aurreikus daiteke, gauzak dauden bezala mantenduko dituztela uste dugu. Dena dela, aurrera ez egitea larria da. Nahiko mantso genbiltzan lehen ere...

Nolako etorkizuna aurreikusten duzu?

Asko dago egiteke, beraz, etorkizun hurbila behintzat lanean irudikatzen dut. Aurrerapausoak emango ditugula uste dut, eta horiek jendearen presioagatik izango dira. Jendarteak badu euskaraz bizitzeko gogoa. Herri-gogo horrek presioa egingo du eta presio horren ondorioz egoerak hobera egingo du.

Motzean

Zure burua hitz gutxitan:
Lotsatia eta kementsua.
Nondik datorkizu euskararekiko atxikimendua?
Etxetik jaso dudala esango nuke.
Liburu bat?
Txillardegiren biografia.
Musika talde gustukoena?
Su Ta Gar.
Euskara ikasten ari direnentzat aholku bat.
Beldurrak atzean utzi eta erabili. Ez da hain zaila.
Eta irakasleei?
Orain artean bezain gogotsu segi dezatela.
Amets bat?
Euskal Herri erabat euskalduna.

Baztan-Bidasoaldeko Anfasen lan egiten duen taldea. UTZITAKOA

Aurreiritzi eta estigmen aurka denak bat izateko

0 eta 20 urte bitarteko 70 haur eta gaztek parte hartzen dute Anfas elkarteak Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan eskaintzen dituen programetan. Elizondon, Donezteben eta Lesakan ditu egoitzak eta urtetik urtera erabiltzaile kopurua goitzen ari da

G. PIKABEA

«Ziurgabetasuna, sorpresa, ezjakintasuna...» sentitu zituzten seme-alabek desgaitasunen bat izan zezaketela jakin zutenean, baina urteekin hasierako kezka horiek gainditu dituzte Ana Mari Bengoetxea Lastiri urdazubiarrak, Angela Barrenetxe Olaizola gartzaindarrak, Idoia Apeztegia Zozaia beratarrak eta Mari Jose Iribarren Iribarren doneztebarrak. Horretan Anfas izan dute bidelagun, garapen eta adimen desgaitasunak dituztenen aldeko Nafarroako elkartea.

1961ean sortua da Anfas, eta ibilbide luzea egin du geroztik Nafarroan. Baita eskualdean ere. Ia 14 urte dira Baztan-Bidasoaldean lanean hasi zela eta urteekin eskualdeko hainbat haur eta familiarentzako erreferentzia bilakatu da. Hori baieztatu digute Iribarrenek, Apeztegiak, Barrenetxek eta Bengoetxeak; «aitzinera egiteko» eta «kezkak argitzeko bitartekoak» eskaintzen dizkielako.

Datuak ere erabiltzaileak zerbitzuarekin kontent dauden seinale dira. Gaur egun, Anfasek hiru egoitza ditu inguru honetan; Elizondon, Donezteben eta Lesakan, eta horietan 0 eta 20 urte bitarteko 70 haur eta gazte ibiltzen dira; «duela hamar urte 40 ume ziren», gaineratu du Maite Aranbillet Galzagorri Baztan-Bidasoaldeko Anfaseko arduradunak. «Urtetik urtera erabiltzaile kopurua handitu egin da eta hemendik goiti horrela segitu nahi dugu, gure zerbitzuen beharra duten guztiei arreta egokia eskainiz». Halere, non ari badutela onartu digu, ez baitira nahi adina zabalduak: «ikastetxeekin, gizarte-zerbitzuekin eta osasun zentroekin harremana sustatzea eta mantentzea da gure helburua».

Gainerakoan, gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen dute Baztan-Bidasoaldean: «hasieran, 0-6 urte bitarteko haurrei eta horien familiei zuzendutako programa bakarrik eskaintzen genuen. Denborarekin eskaintza hedatu dugu, adin tarte zabalagoa hartuz». Gaur egun, haurren eta gazteen garapenerako programez gain, familientzako eta gizarteratzeko programak eskaintzen dituzte Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan. Eta guztiaren gibelean zazpi laguneko taldea dute: pedagogoa, logopeda, bi psikologo, igerilekuko arduraduna, hezkuntza bereziko irakaslea eta gizarte langilea. Baita boluntarioak ere: «hagitz garrantzitsuak dira. Gure kasuan, igerilekuko jarduera, adibidez, boluntarioei esker egiten dugu».

«BEHARRA DUTENEI ARRETA ESKAINIZ SEGITU NAHI DUGU»

MAITE ARANBILLET, ANFAS

Haurren eta gazteen garapena

0 eta 6 urte bitarteko haurren kasuan, arreta goiztiarreko programa eskaintzen dute, «urritasunak edo nahasteek sor ditzaketen ondorioak murriztu edota ezabatzeko», dio Aranbilletek. Aipatu behar da 0 eta 3 urtekoen zerbitzua Nafarroako Gobernuak kontzertatua izanik, debaldekoa dela.

Sei urtetik derrigorrezko hezkuntza bukatu arteko haur eta gazteen programaren barne, berriz, «gaitasun akademikoak, sozialak eta komunikatiboak» lantzen dituzte. Horrez gain, adimena eta gorputza lantzeko jolas eta kirol jarduerak egiten dituzte haur zein helduekin, tartean, igeriketa.

Familientzako programak

Familiei ere bitartekoak eskaintzen dizkiete. Hala nola, «familiako kideen gaitasunak hobetzeko eta harremanak sendotzeko oinarrizko formakuntza» bideratzen dute, «familiako bizikidetza aberasgarria, sortzailea eta osasuntsua izan dadin». Bertzetik, «babes emozionala eta esperientzia zein kexak elkarbanatzeko arnasgunea eskaintzen diegu», aipatu digute. Horrez gain, haur eta nerabeen garapenaren inguruko balorazioak egiteaz arduratzen dira: «txosten batean familientzako zein profesionalentzako orientabideak proposatzen ditugu eta banakako plana egiten dugu».

Gaia zehatzetan sartuz, Autismoaren Espektroko Nahasmendua (AEN) dutenen familientzat eta horiekin lan egiten duten profesionalentzat esko-

lak antolatzen dituzte, alde teorikoa eta praktikoa landuz, «egunerokoan izan ditzaketen oztopoak azaldu eta horien aitzinean kontuan izateko estrategiak landu eta garatzeko».

Sentsibilizatzearen garrantzia

Gizartea sentsibilizatzea da Anfasen bertze erronka nagusietako bat. Horretarako, «ikastetxeetan ikasleekin zein irakasleekin gaia lantzeko jarduerak antolatzen ditugu». Helburu bikoitza dute: «ikasleak eta irakasleak sentsibilizatzea eta adimen edo garapen desgaitasuna duen ikaslearen inklusioa sustatzea». Gisa berean, «udalek, erakundeek, elkarteek, ikastetxeek eta kolektiboek gizartea sentsibilizatzeko programaren inguruko informazioa eska dezakete jarduera zehatzak antolatzeko».

Gaia sozializatzeko «bidean gauden arren, egiteko aunitz» dagoela azpimarratu du Aranbilletek. Oraindik ere «aurreiritzi aunitz» sumatzen ditu: «familiekiko, haurrekiko, garapen 'normalarekiko'...». Gizarteratzea eta inklusioa «denon ardura» delakoan dago, eta bere ustez, «begirada aldatzean dago koxka: haur eta gazte hauek, bertze haurrek eta gutako edozeinek bezala, gaitasunak eta zailtasunak dituzte. Zailtasunetatik harago, gaitasunei arreta jarri behar diegu, pertsona bere osotasunean eta bere inguruan ikusiz».

Hori lortzeko lanean ari dira Anfasen, «bertzelako garapena duten haur eta gazteen inguruan dagoen estigma apurtzeko eta egoera normalizatzeko» lanean. Estigmak baztertzeko «malguak izatea» garrantzitsutzat jo du, eta «haurren eta gurasoen beharren arabera egokitu» behar dela gaineratu du. Aranbilleten irudiko, behin hori ulertutakoan, «benetako inklusioa lortzeko aukerak ezarriko ditugu eta edozein norbanako bezala, haur, gazte eta familia hauek eskualdean eta nahi duten arloetan garatzeko eskubideak lortuko ditugu».

Erabiltzaileak zerbitzuarekin kontent

Idoia Apeztegia eskuinean eta Erika alaba erdian.

Zerbitzua eskualdean izatearen garrantzia

Erikaren –alaba– bitartez ezagutu zuen Idoia Apeztegiak (Bera) Anfas elkartea eta «oraingoz, logopedia eta estimulazio zerbitzua» erabiltzen dituzte. Elkarteko bazkidea ere bada eta beretzat hain lagungarri izan dela ikusita, egoera berean dauden gurasoei aholkatu die. Bere ustez, «hagitz garrantzitsua da gure eskualdean zerbitzu hauek izatea eta erabiltzea».

Ana Mari Bengoetxea Lastirik alabaren bitartez ezagutu du Anfas.

Kezkak argitzeko bitartekoa

Eider –alaba– sortu zenetik Anfasen dabil Ana Mari Bengoetxea (Urdazubi). «Kezkak argitzeko» lagungarri zaiola dio, eta «alabari bere ezintasunekin laguntzen» diotela. Gurasoekin egiten duten lana ere nabarmendu du: «aunitzetan ez dakigu nola jokatu eta erakutsi egiten digute». Hori bai, «zerbitzua etxetik hurbilago» izatea eskatu du, «aldiro bidean ordubete egin behar dugu».

Andrea Mindegia Iribarren.

Laguntza eta babesa

Andrea –alaba– ttikia zenetik Anfasekin ibilia da Mari Jose Iribarren (Doneztebe), «lehenbizian Iruñera joan behar izaten genuen eta gero zerbitzua eskualdean jarri zuten». Hasieratik «informazioa, laguntza eta babesa» eskaini dizkio, eta bere hitzetan, «izugarri lagungarria da egoera berean daudenekin partekatzeko aukera izatea eta aholkularitza eskaintzen duen gunea eta profesionalak eskura izatea».

Haurraren beharren arabera egokitutako laguntza

Angela Barrenetxe gartzaindarrak adierazi digunez, Anfasek «aunitz gauzetan» lagundu dio, «haurren egoeraren arabera egokituta, laguntzeko bitartekoak dituzte». Eta bere irudiko, «medioak izatea da garrantzitsuena». Anfasek eskaintzen dituen zerbitzuez baliatzen da bi semeekin eta «aita eta ama guztiei» edozein zalantza dela ere, Anfasera joateko deia egin die: «nola landu aholkatuko dizuete».

Angela Barrenetxe bi semeekin joaten da Anfasera.

TABERNA EDARIAK

1949. urteaz geroztik eskualdeko banatzailea

1949an eman zituen lehenbiziko pausoak **Taberna Edariak** enpresak. Orduan sortu zuen Manuel Tabernak, bazkide batekin batera, *Sucesores de Jose Gorria* izeneko edarien banaketarako enpresa. 1975ean bakarkako bideari ekin zion Manuelek eta duela berrogei urte inguru, haren seme Manolok hartu zion lekukoa. **70 urte** bete berriak dituzte eta bertze hainbertze betetzeko gogoz dira; hirugarren belaunaldia ere heldu baita gibeletik.

70. urtemuga ospatzen ari zarete. Zein da hainbertze urtez aritzeko sekretua?
Zerbitzua emateko bokazioa dugu. Hurbileko zerbitzua eskaintzen dugu, konfiantzazkoa. Emandako hartatik jasotzen dela uste dut eta jendeak gugan konfiantza izan duelako segitzen dugu lanean.

Zein eboluzio izan du enpresak?
Aldaketa handia izan du. Pentsa, aitak gurdia erabiliz banatzen zituen edariak; batez ere, ardoa. Edarien merkatuan eskaintza zabaldu da eta enpresak ildo beretik eboluzionatu du. Lehen ardo xuri, beltz eta gorria saltzen zen fondan, orain badira ehunka edari eta marka. Saltzeko modua ere aldatu da. Lehen pertsona bera arduratzen zen kamioia kargatu, banatu eta saltzeaz. Orain kate bat osatzen dugu. 1988an inflexio-puntu bat izan genuen. Inbertsio handiak egin genituen material eta pertsonalean eta lana banatu genuen, saltzaile, banatzaile eta administratzaileen artean.

Zenbat langile ari zarete?
Momentuan lantegian 8-9 lagun ari gara, udan 11 lagun izatera ailegatu gara. Uda izaten da lan gehien izaten dugun sasoia, ekainean hasi eta urrira arte, negua gero luzea izaten da.

Norekin aritzen zarete lanean?
Taberna, jatetxe, elkarte eta partikularrekin lan egiten dugu eta mugako merkatua ere garrantzitsua da guretzat, sendotasuna eman digu. Endarlatsatik Dantxarineraino, ezker-eskuin egiten dugu banaketa, Bortziriak, Malerreka, Xareta eta Baztanen.

Bertako produktuei eta enpresa ttikiei tokia egin diezue zuenean.
Garbi dugu zer garen eta nondik gatozen eta gure zonaldea indartzeko bertakook bertakoekin lan egin behar dugula uste dugu. Hemengo enpresa ttikien edariak banatzeko ahalegina egin nahi izan dugu. Gainera, marka ttikiek kalitate oneko produktua eskaintzen digute; mimoz egina.

«BERTAKOOK BERTAKOEKIN LAN EGIN BEHAR DUGULA USTE DUGU»

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.

Tel.: **948 631 027**
www.tabernaedariak.eus
Bezeroentzat-arreta:
Bidasoa, 76 - BERA
Ordutegia:
Astelehenetik ortziralera,
08:30-13:00 / 15:00-18:30

bai euskarari zerbitzua euskaraz

Lurraren Eguna ekitaldiz gainezka dator aurten ere

Urriaren 26an Lizuniagako Igoera eta barazki-opil lehiaketa eta biharamunean, gasna eta sagardo lehiaketak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Urriko azken asteburua ekitaldiz betea izanen da aurten ere. Urriaren 26an, larunbatean, Lizuniagako Igoera eginen dute. 15:30ean, ttikien lasterketa abiatuko da Iamoteneatik, eta 17:00etan, berriz, Lizuniagako igoeraren 39. edizioa hasiko da Eztegara pilotalekuaren ataritik. 18:00etan Aitziber Orkolagaren *Plaketak* argazki erakusketa Labiaga Ikastolan irekiko dute. 18:30ean XIII. barazki-opil lehiaketa hasiko da Altzateko frontoian. Aurten, 200 euro, ardo-kaxa eta oroigarria jasoko ditu irabazleak. 19:00etan Bera kantari ibiliko da eta 20:00etan trikitilariak.

Barazkiak ikusgai izanen dira

XXXIII. Lurraren Eguna

Aurten 33. edizioa beteko du Lurraren Egunak urriaren 27an. Igandean, 10:00etan, eskulangileen eta elikadura azoka, barazkien eta Olakoren erakusketak eta tailerrak irekiko dituzte Altzaten eta Merkatuko Plazan. Horrez gain, Bortzirietako 33. gasna lehiaketa eta 22. sagardo lehiaketa ere eginen dituzte igandean. Bortzirietako ekoizlea izan behar da eta 12 euro ordainduko da gazta bakoitzaren truke eta 6 euro sagardo botilaren truke. Gazta lehiaketa irabazten duenak 300 euroko saria eta oroigarri bat eramanen ditu eta bigarrenak 200 euroko saria. Sagardo lehiaketako irabazleak, berriz, 200 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 100 euro. Musikarik ere ez da faltako, ez Altzateko plazan ezta karriketan ere.

Arratsaldean, 16:30ean, bertsolariek zuzendutako sari banaketa eginen dute, 17:30ean Muxikoak Kuxkuxtu txarangarekin eta 18:30ean dantzaldia Oharkabe taldearekin. Egun guztian taloak, jaki eta edari dastatzeak izanen dituzte.

UTZITAKO ARGAZKIA

La Trócolaren zirkua bikaina izan da

La Trócola zirkuak *Emportats* lan bikaina eskaini zuen urriaren 5ean Kultur Etxean. Eskualdean hainbat ekitaldi bazirela kontun hartuz, ez zen jende aunitzik bildu, baina haur eta helduek aski ongi pasatu zuten akrobazia, malabarismoa eta musika uztartu zituen emanaldian.

XV. margo lehiaketa aire zabalean igande honetan

Gure Txokoak, Udalaren babesarekin, XV. Berako pintura-lehiaketa aire zabalean antolatu du urriaren 20rako. 16 urtetik goitiko edozeinek parte hartu ahal izanen du, eta izena emateko egun berean joan beharko da Iamoteneara 09:00etatik goiti. Lanak 14:30erako aurkeztu beharko dira, 17:00etatik 18:00etara erakusketa irekiko dute Iamotenean eta 18:00etan emanen du epaimahaiak saridunen berri. Bi sari emanen dituzte, 1.000 eurokoa, lehenbizikoa; 700 eurokoa bigarrena.

Ipuin kontalaria eta kontzertua asteburu honetarako

Urriaren 18an, ortziralean 18:00etan Izaskun Mujika ipuin kontalari urnietarra izanen da herri liburutegian. *Zuhaitzan hazitako ipuinak* emanaldia eskainiko du, 4 eta 7 urte arteko neska-mutikoei zuzendua. Biharamunean, larunbatean 19:30ean Iruñeko Mirua Abesbatzak kontzertua eskainiko du Kultur Etxean, Ana Tejedorren zuzendaritzapean. Bertze aldetik, aipatzekoa da Berako Abesbatzak eta txistulari taldeak kontzertua eskaini dutela larunbat honetan Urruñako elizan.

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

LABE ZAR
948 631 076 • BERA
Astelehenetik ortziralera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

Manterola
Tekniko Instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
✆ 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Euskaraz ongi ez dakiten gurasoentzat solasaldia izanen da

Urriaren 29an eskainiko du Paula Kasaresek Koskonta Bideko udal-aretooan eta haurtzaindegia ere izanen da

AITOR AROTZENA

Euskaraz ez dakiten edo ongi moldatzen ez diren gurasoentzako hitzaldia izanen da urriaren 29an, asteartean 17:00etan, Koskonta Bideko udal-aretoan, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta.

Hitzaldiaren helburua da etxean euskara irakasteko aukerarik ez duten gurasoei haien seme-alabak elebidun bilakatzen laguntzea. Hau da, hizkuntza bera ezin diete irakatsi, baina bai hizkuntzaz jabetzeko beharrezkoa diren motibazioa, erabilera eta ezagutza bermatu eta ziurtatu. Hori guraso guztien esku dago, euskaraz jakin ala ez. Hitzaldia gaztelaniaz izanen da eta haurtzaindegi zerbitzua izanen da.

Hizlaria Paula Kasares Corrales izanen da. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea da, eta bere tesi doktorala euskararen belaunez belauneko jarraipenaren eta familia euskaldunetako hizkuntza sozializazioaren gainean egin zuen. Azken urteotan gisa honetako hitzaldi ugari eskaini dizkie gurasoei Euskal Herri osoan.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Rafael Eneterreaga hil da

Rafael Eneterreaga Irigoien irailaren 29an hil zen. Herriko historia ikertu eta ezagutzera ematen zuen sare sozialen bidez, bisita gidatuetan gidari lanak egiten zituen… Zenbait artikulu eta liburu idatzi zituen (Olentzero, herriko gaiak…) eta 2014ko sanferminetako txupinazoa berak bota zuen.

Aiegiko abesbatza kantari izanen da larunbatean elizan

Urriaren 19an, larunbatean 20:00etan, Aiegiko Camino de Santiago Abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan. Ekitaldi hau Lesakako Abesbatzak antolatu du, Udalaren laguntzarekin. Abenduaren 15ean, herriko abesbatza Aiegin izanen da kontzertua ematen.

Solasaldia eta gaztain-jatea bertso eskolaren eskutik

Bortzirietako bertso-eskolak antolatuta, *U-morez* solasaldia eskainiko du Ane Labakak urriaren 18an, ortziralean 17:30ean Koskonta bideko udal aretoan. Hilaren 26an, berriz, gaztain-jatea eginen dute Basurden, Unai Iturriaga eta Miren Amuriza bertsolariekin.

Zokiren azken liburua aurkeztuko dute larunbatean

Aspaldian Parisen bizi den Francisco Javier Irazoki *Zoki* idazle lesakarrak *El contador de gotas* bere azken liburua aurkeztuko du urriaren 19an, larunbatean, 18:30ean udaletxeko pleno-aretoan. Liburua herriko liburu-dendetan erosteko aukera ere bada.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Harriondoan

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du urriaren 24an, heldu den ortzegunean 20:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Orkestrak berak antolatu du emanaldia, Herriko Etxearen laguntzaz eta sarrera sei euro ordaindu beharko da.

Nerabeen gurasoentzat solasaldiak eginen dituzte Beran

TTIPI-TTAPA

Nerabezaroan ohikoak diren portaera arriskutsuen prebentzioan eta ohitura osasuntsuen sustapenean familiatik egin daitekeena aztertzeko, gurasoentzako solasaldiak antolatu ditu Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Urriaren 22an eta 29an izanen dira, 17:00etatik 18:30era Berako Beralandetan eta gaztelaniaz eskainiko dira. Izen-ematea *info@bortziriakgz.eus* helbide elektronikoan edo 634 22 36 59 telefonoan egin daiteke.

Suspertuk emana

Suspertuk emanen dituen hitzaldien helburua norbere gurasotasuna aztertzea da, sustantzien kontsumoen gaiari guraso arduretatik aitzin egiteko. Edukiei dagokienez, lehenbiziko saioan nerabeen arrisku-portaerak zein diren, babes- eta arrisku-faktoreak, kontsumoaren pertzeptzioa eta alkoholaren kontsumoa, lehen kontsumo zantzuak, gure kontsumo eredua, zein eredu eskaintzen ari garen aztertuko dute. Bigarren saioan, berriz, arau eta mugak eta heziketa estiloak aztertuko dituzte.

Usategietako Igandea urriaren 20an izanen da

Ekitaldiak bezperatik hasiko dira, gazteek antolatutako mus eta patata tortilla txapelketekin

IRUNE ELIZAGOIEN

Urriaren 19an, larunbatarekin, Etxalarko gazteek antolatuta, hainbat ekitaldi izanen dituzte herrian. 17:00etan mus txapelketa izanen da. Izena emateko aukera egunean bertan izanen dute 16:30ean frontoian. 19:30ean patata tortilla txapelketa eginen dute. Aitzinetik izena eman behar da hirukoteka, Elutsan edo Herriko Ostatuan. 21:30ean mus eta patata tortilla txapelketetako sariak banatuko dira eta DJ Aimarrekin goizalderarte luzatuko da besta.

Usategietako Igandean, goizean (eguraldi ona bada), talo postua jarriko du Altxatak Lizaietan. Arratsaldean Udalak antolatuta, Oharkabe taldea izanen da herriko plazan 18:0e0tatik 21:00etara. Frontoian ostatua egonen da Altxataren eskutik.

Usategietako Igandea Lizarietan.

'Bortziriak solasean' aurkezpena eta Dama Beltzak kantari Kultur Egunetan

IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko Euskara Batzordeak antolatuta Kultur Egunak izanen dira urriaren 17an eta 18an. Ortzegunean, 19:00etan *Bortziriak solasean* liburuaren eta DVDaren aurkezpena eginen dute Kultur Etxean. Ortziralean, berriz, Estitxu Pinatxo abeslari beratarraren eta Mikel Santxez musikari lesakarraren eskutik *Dama Beltzak* kantaldia eskainiko dute 20:00etan Kultur Etxean.

LANDAGAIN ESKOLA

Txistu kontzertu didaktikoa

Irungo udal txistu taldearen eskutik txistu kontzertu didaktikoa izan zen kultur etxean urriaren 4an. Bertze urte batez, Landagain eskolako ikasleek aunitz gozatu zuten eta kontzertu gustagarria ikusi, entzun, dantzatu eta kantatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Helpbidea aurkeztu dute

Urriaren 9an egin zen *Metrobaserri* proiektuaren aurkezpena kultur etxean. Proiektu hau, identifikatzaile bakar baten bitartez eraikuntzak kokatzeko eta seinaleztatzeko proiektua da, gure inguruan egin diren metro-planoak oinarri dituena. Baserrien kokapena GPS koordenadekin bilduta egonen da.

"TELLETXEA" Lorazaintza
Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa
T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

USOA
Nekazari kooperatiba
ORAIN GASOLINA ERE
T. 948 635 214 ETXALAR

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satelite bidezko instalazioak

Herriko kirolari gazteen artean bota zuten txupinazoa. OSKAR TXOPERENA

Dantzariak, txistulariak eta erraldoiak, emanaldiaren ondotik. OSKAR TXOPERENA

Eguraldi eta giro ederra izan da aurten ere bestetan

Herriko kirolari gazteek bota zuten txupinazoaren ondotik, lau egunez bikain joan ziren sanmigeletako ospakizunak

Herriko dantzariek saio bikaina eskaini zuten. OSKAR TXOPERENA

TTIPI-TTAPA

Pilotan, txirrindularitzan, kenpon, herri-kiroletan... Hainbat kirol eta modalitatetan ari dira herriko gazte aunitz eta hauei errekonozimendua eginez, kirolari gazteek bota zuten San Migel bestetako txupinazoa, lau eguneko besta bikainei bide eginez. Eguraldi eguzkitsua izan zen, eta horrek eragina izan zuen giro paregabean. Larunbatean, toka txapelketa jendetsuaz gain, herri-kirol jaialdi bikaina izan zen. Euskal Herriko koxkorbiltze txapelak banatu zituzten, baita Nafarroako arpana txapelketa mistoarena ere. Baina aipagarria, bertze behin, gaztetxoek proba konbinatuan erakutsitako sasoia eta gazteek antolatutako eta gauzatutako desafioa. Gauerdiko zezenek ere izan zuten arrakasta.

San Migel Egunean dantzariek bikain bete zuten bere lana eta bukatzeko, hondar egunean, haurrentzako ekintzak, Iker Zubeldia eta Julio Sotorekin bertso-bazkaria eta azken ospakizunak izan ziren, Elutxa txarangarekin *Gaixoa ni* kantatu baino lehen.

Aurten ere eskaintza zabala izanen da Baserritarren Egunean.

Hainbat hitzordu urri akabailan eginen diren kultur egunetan

Azaroaren 1ean Ekaitza Elkarteak antolatuta, XXIV. Baserritarren Eguna izanen da

NEREA ALZURI

Ikasturtea hasi eta agudo, udazkeneko kulturaldirako jarduerak prestatzeko biltzen da Euskara Batzordea. Aurten ere, urriroari akabaila eta azaroari hasiera emateko, haur, gazte eta helduentzako, hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskara Batzordeak.

'Bortziriak Solasean'

Urriaren 24an, ortzegunarekin, hasiko dira kultur egunetako hitzorduak. Egun horretan, *Bortziriak Solasean* liburu eta DVDaren aurkezpena eginen dute 19:00etan liburutegian. Liburua eta DVDa 2000an eta 2001ean egindako 50 lekukoren elkarrizketetan oinarritutako ahozko tradizioaren bilduma da.

Ipuin kontalaria eta Bankako Menditarrak

Urriaren 26an, larunbatean, Ixabel ipuin kontalaria izanen da haurrentzat. Hitzordua 17:00etan eskolan egin dute eta ondotik, berendua eskainiko dute. Egun eta toki berean, Bankako Menditarrak kantarien emanaldiarekin gozatzeko aukera izanen da. 20:00etan hasiko da saioa.

Antzerkia

Igandean, urriaren 27an, Tartean Teatroaren eskutik, Patxo Telleriaren zuzendaritzapean eta Mikel Martinez aktorearekin, *Tabernaria, instrukzioak botatzeko ondo bat kaña* bakarrizketa ikusgai izanen da 19:00etan Zahar-Txokon.

Baserritarren Eguna

Kultur Egunak borobiltzeko, azaroaren 1ean XXIV. Baserritarren Eguna eginen da eta dagoeneko hori antolatzen hasia da Ekaitza Elkartea. Aldi honetan ere, hainbat erakusketa eta salmenta postu paratuko dituzte frontoian, herritarrek egindako barazkiak, gozokiak, zerrikiak, opilak, eskulanak edota etxean edo baserrian hazitako aziendak izanen dira ikusgai eta salgai. Gazta eta ahari lehiaketak ere eginen dituzte eta bertako produktuekin osatutako saskiaren zozketa ere eginen dute. Urtero bezala ostatua ere jarriko dute eta bildutako dirua eskolaren alde izanen da.

Ainara Velez Ara beratarra hasi da Herriko Etxeko idazkari lanetan

N. ALZURI

«Azken boladan, Udalaren jarduera ezohikoa izan da eta herritarrei ezin izan diegu guk nahi bezalako arreta eman. Hortaz, barkamena eskatu nahi dizuegu». Halaxe dio Udalak etxetara bidali duen oharrak. Administrari eta idazkari lanpostuetan izan diren harat-honatengatik gertatu da hori.

Ekainean, Mari Jose Larraioz Ariztegik idazkari postua utzi ondotik, Udalak, Nafarroako Gobernuaren bitartez bere ordezkoa hautatzeko prozesua martxan paratu zuen. Azterketak egin ondotik, probetan puntuaziorik altuena Izaskun Etxeberria Larburuk lortu zuen eta abuztuaren 19an, idazkari lanetan hasi zen.

Irailaren 16an, Josetxo Urreta Arribillaga administrariak gaixotasun baja hartu zuen eta irailaren 30ean, Izaskun Etxeberriak idazkaritza utziko zuela iragarri zuen. Beraz, Udalak, hautaketa prozesuan bigarren postuan gelditu zen Eguzkiñe Aiesa Andres kontratatu du, baina amatasun bajan dagoenez, bere ordez, oraingoz, hirugarren gelditu zen Ainara Velez Ara hasi da idazkaritzan.

Lana arintzeko neurriak

Herriko Etxean gibelatutako lana eguneratzeko, sei hilabetetarako langile bat kontratatu nahi du Udalak. Eta idazkariaren eta administrariaren lana errazteko eta eraginkorragoa izateko, herritarren arretarako ordutegia mugatu du: astelehenetik ortziralera, 10:00etatik 13:30era. Norbaitek ordutegi horretan ezin badu Herriko Etxera joan, deituta zehaztuko dute hitzordua.

Medikuaren etxeko lanak urri akabailan hasiko dira

Urri akabailan, medikuaren etxeko berritze lanak hasiko direla jakinarazi du Udalak eta lau aste iraunen dute. Tarte horretan, 948 638000ra deitu eta Igantziko kontsultara joan beharko da. Lanak egiteko %100eko subentzioa lortua du Udalak.

Egur-loteak eskatzeko epea zabalik

Urtero bezala, aurten ere egur-loteak eskatzeko aukera eskaini du Udalak. Etxeetara bidali duen udal informazioan azaldu duenez, interesa dutenek urriaren 31 bitarteko epea izanen dute horretarako. Herriko Etxean egin behar da eskaera.

Dantzariek urteroko emanaldia eskainiko dute larunbatean

Hamaikagarren urtez saio dotorea prestatu dute eta 19:30ean hasiko da jaialdia frontoian

MAIDER PETRIRENA

Herriko dantzariek hamaikagarren aldiz dantza emanaldia eskainiko dute pilotalekuan urriaren 19an, larunbatean 19:30ean hasita.

Haur, gaztetxo eta helduek urte osoan ikasten ari diren dantzak ikusteko aukera izanen da jaialdi honetan: *Agurra*, *Desmayo*, *Neskatxa*, *Borobila*, *Txalo-polka*, *Scottish*, *Polka*, *Gorulari*, Arin-arin, Dantza, *Cuatro calles*, *Bailaos*, *Makil ttiki*, *Xuxi* eta denak batera *Ttipitto*. Animatu jaialdi eder hau ikustera.

'Batelera' dantzatzen, 2011ko saioan.

Guraso Elkartearen bilera orokorra urriaren 21ean eginen dute frontoian

M. PETRIRENA

Eskolako Guraso Elkarteko bilera orokorra urriaren 21ean,heldu den astelehenean 19:00etan eginen dute Angelan(frontoian). Eguneko aztergaiei dagokienez, azken bileraren akta irakurriz eta, egoki bada, onartuz hasiko dira. Ondotik, 2019/2020 ikasturteari dagozkion kuotak onartuko dituzte. Segidan, juntaren aldaketa aztertuko dute eta, akitzeko, eskari eta galderen txanda izanen da. Seme-alabak bezala, beraz, gurasoek ere ikasturte berriari ekinen diote.

ESKOLAK UTZIA

Ikasturteko lehen ateraldia egin dute

2019/2020 ikasturteko lehen ateraldia egin dute herriko eskolako ikasle eta irakasleek. Urriaren 4an egiteko asmoa zuten, baina eguraldiak ez zuenez lagundu, urriaren 7an joan ziren gaztain biltzera. Jolas orduaren ondoko bi saioak gaztainak biltzen pasatu zituzten.

MAIDER PETRIRENA

Haur eta helduak mendi bizikletan

Irailean eskualdean izandako BTT ibilaldietan parte hartzeko aukera izan dute herriko gaztetxo eta helduek. Argazkian ikus daitekeen bezala irailaren 29an izandako Berako BTTan herritarren partaidetza haundia izan zen. Eguraldia lagun ibilbide zoragarriaz gozatzeko aukera izan zuten.

Txirrindulari gaztetxoak DN Openean ari dira

Diario de Navarrak antolatzen duen Openean ere herritarren partaidetza haundia izan da. Hilaren 6an Lodosan ibili ziren (argazkian), 20an Lukinen eta 27an Oteizan barna ibiliko dira.

Vocal Group Era abesbatza letoniarra elizan ariko da

Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartuko duen taldeak azaroaren 3an kontzertua eskainiko du herrian

TTIPI-TTAPA

Aurten XXV. edizioa beteko duen Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloaren barne, Letoniako Vocal Group Era abesbatzaren kontzertuarekin gozatzeko aukera izanen dute herritarrek. Azaroaren 3an izanen da elizan, 19:00etan, eta aipatzekoa da abesbatza hori Tolosako Abesbatzen Lehiaketa ezagunean parte hartzekoa dela. Zehazki azaroaren 1ean ariko da Tolosan.

Duela hamarkada bat sortua da eta geroztik nazioartean hainbat emanaldi eskaini ditu emakumezkoen talde honek.

Letoniako abeslariak.

Agenda kontu gehiago

Letoniako abesbatzaren emanaldiaren aitzinetik, agenda kontu gehiago izanen dira. Urriaren 27an, erraterako, Erreka Guraso Elkarteak denboraldiko lehenbiziko film emanaldia eskainiko du. *Printze Txikia* ikusteko aukera izanen da, 16:30ean. Hortik aitzinera, hamabortzetik behin film bat eskainiko du Guraso Elkarteak apiril hondarrera bitarte.

Bertzetik, urriaren 24an, sormen tailerra hasiko da. Hilabeteko hirugarren ortzegunetan, 19:00etan, Liburutegian eginen dute hitzordua.

Ez da Udalak antolatutako ikastaro bakarra izanen. Atabala eta gaita ikastaroa ere antolatu du eta honetan interesa dutenek Leire Ortuoste zinegotziari jakinarazi beharko diote. Aipatu behar da, ikastaro honetan herritarrek prezio berezia izanen dutela.

Tokiko Agenda 21 berritzeko asmoz herritarrekin foroak egiten hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Nola dago Malerreka? Galdera hori abiapuntutzat hartuta, Malerrekako Tokiko Agenda 21 berritzeko prozesuaren barne, herritarrek parte hartzeko lehenbiziko foroa egin zuten urriaren 3an. Ortzegun honetan, urriak 17, bigarren saioa eginen dute, *Plan bat eginen dugu?* lelopean. 18:30ean egin dute hitzordua, San Miguel ikastetxean. Herritarrekin egitekoa duten hirugarren foroa azaroaren 7an eginen dute, 18:30ean eskolan. Bilera hori ekintzak lehenesteko baliatu nahi dute.

Tabakoa uzteko tailerrak urri hondarrean hasiko dira

TTIPI-TTAPA

Erretzeari utzi nahi dionak horretarako aukera izanen du urri hondarrean hasi eta abendua bitarte osasun etxean eginen diren saioetan.

Tailerrak urriaren 28an, azaroaren 4an, 11n, 18an eta 25ean eta abenduaren 9an izanen dira, 17:30etik 19:00etara. Interesa duenak bere erizainari erranez edo osasun etxean jakinaraziz eman dezake izena.

Minbiziaren Aurkako Elkarteko psikologoa den Chema Larraioz Perezek eskainiko ditu tailerrak.

MAIDER OMAR

Gazte Burrunbakoak Mendaurren

Gazte Burrunba Kultur Taldeak antolatuta, argazkiko gazte kuadrilla Mendaurren izan zen urriaren 6an. Kiroldegitik Bostorratzera autoz joan ziren eta handik tontorrerako bidea oinez egin zuten. Gazte Burrunbatik jakinarazi dutenez, laster bertso-afaria egiteko asmoa omen dute.

'Zergatik komunikatzen dugu gaizki?' tailerra azarora gibelatua

TTIPI-TTAPA

Euskarabideak antolatzen duen *Sarean euskaraz* ekimenaren barne, urrian Donezteben egitekoa zen ikastaroa azaroaren 7ra eta 14ra gibelatu dute.

Zergatik komunikatzen dugu gaizki? izenburupean, blogetan eta sare sozialetan komunikatzeko era egokia lantzeko argibideak emanen dituzte tailerrean. San Miguel ikastetxean eskainiko dute eta batean zein bertzean, 17:00etatik 20:00etara bilduko dira.

Izen-ematea *www.sareaneuskaraz.eus* atarian egin behar da.

Zubietako errotaren funtzionamendua ezagutzeaz gain, taloak jan eta astoan ibili ziren. UTZITAKO ARGAZKIA

Pulunpariek Zubietako errota bisitatu dute

Ikasleek, urriarekin batera, eskolak goiz eta arratsaldez hasiak dituzte

ARKAITZ MINDEGIA

Bertze eskoletan bezala, Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleak buru-belarri ari dira lanean. Urritik aitzinera eskolak goiz eta arratsaldez jasotzen hasiak dira eta jantokia ere martxan paratu dute dagoeneko. Aurtengoan ere Alix Gerekaren bazkari goxoak dastatuko dituzte eta Eneritz, Anuska eta Ainhoa izanen dituzte zaintzaile. Euren goxotasuna izanen da bertan bazkaltzen duten haurren gozagarri.

Lehendabiziko ateraldia

Zubietara egin zuten lehenbiziko ateraldia Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleek. Egun guziko ateraldia izan zen. Goiz-goizetik lau eta hamabi urte bitarteko ikasleak beraien irakasleekin Uraren Bidetik Zubietara oinez joan ziren, (ttikienak autoz eraman zituzten). Bertan errotako bisita egin zuten. Ondotik, talo tailerraz eta asto gaineko ibilaldiaz gain, Zubietako plazan sortu ziren joko eta algarekin, egun polita pasatu zuten.

Eskolaz kanpoko ekintzak

Astean zehar herrian bertsotan, dantzan edota trikitixa edo panderoa jotzen ikasteko aukera izanen da.

Bertso-eskola ortzegunetan

Aurtengoan ere, bertso eskola izanen dute Iturengo eskolan, Iker Gorosterrazuk gidaturik. Bertan apuntatu diren zazpi ikasleak ortzegunetan bertso munduan arituko dira, 16:00etatik 17:00etara.

Dantza emanaldia prestatzen ari dira

Ibintza dantza taldeko dantzariak. azken aldian, entseguak egin eta egin ari dira, Aurtizko bestetan eginen duten dantza erakustaldia ederra izan dadin. Aurten, dantzari ttikien irakasleak Izaro eta Miren izanen dira. Bakarren batek izena eman nahi badu beraiekin harremanetan jartzea aski izanen du.

Malerreka Kantuz egitasmoa Iturendik Donamariara

Udako oporraldiaren ondotik, Malerreka Kantuz egitasmoak urriaren 5an herrian berrartu zuen ibilbidea. Plazan *Aita-semeak* kantuarekin hasi ondotik kanta pila bat kantatu zituzten. Herrian barrena itzulia egin ondotik, hasierako lekuan bukatu zuten buelta. Herritarrez aparte kanpotik ere jende dezente animatu zen. Dagoeneko lekukoa Donamariara pasatu dute eta azaroaren 2an, lehendabiziko larunbatean dute hitzordua. Has daitezela kantak aukeratzen eta zintzurrak berotzen!

Lapurreta saiakera izan da Aurtizko elkartean

Urriaren 6tik 7rako gauean Aurtizko elkartean lapurreta saiakera izan zen. Herritarren batek, gertatutakoaz jabeturik, lapurrei aurre egitea lortu zuen eta horri esker, kalte materialak soilik eragin zituzten. Dena dela, lapurrek ihes egitea lortu zuten.

UTZITAKO ARGAZKIA

Jabier Seinen garaipena Aiegin

Urri hasieran Lizarraldea Epic Maratoia jokatu dute Aiegin. Mailaz igo eta UCI C3 nazioarteko kategoria lortu du mendibizikleta lasterketa honek. Bertan irabazle izan zen Metalgraf SH taldeko Jabier Sein, eta kategoria absolutuan hirugarren postua lortu zuen, denboraldi honetako hoberena.

UTZITAKO ARGAZKIA

Elkartea beteta bertso-afarian

Aurtizko gazteek antolatutako bertso-afarian elkartea lepo bete zen. Iker Zubeldia eta Ander Lizarralde bertsolarien bertsoek mahai inguruan zeudenei gozamen ederra eman zien. Beñat akordeoilariaren musika eta kantuak lagun, gaupasa ederra egin zuten.

Guraso elkarteak egutegiak salgai paratu ditu

FERMIN ETXEKOLONEA

Urtero bezala, guraso elkarteak herrian bizi diren haur eta gazteen argazkiak bilduz, egutegiak egin ditu. Euskararen Egunean elkarteko kideek jarritako postuan saldu zituzten; baina orduan eskuratu ez zutenek oraindik badute aukera. Interesa dutenek kideren batengana jo beharko dute.

Eskuragarri daude dagoeneko.

Azaroan tailerra eta hitzaldia

Euskararen Egunaren ondotik, berriz ere herritarrak lasai dauden arren, Malerrekako Mankomunitateak antolatuta, azaro hondarrean ipuin-kontaketa eta hitzaldia izanen direla iragarri dute. Ekitaldi horien berri, xehetasunak lotu ahala, hurrengo zenbakietan emanen da.

UTZITAKO ARGAZKIA

Mikele Etxekoloneak Leitzulia egin du

Leitzako Mendibil BTT taldearen eskutik, aurten ere Leitzulia egin zuten irailaren 28an. Guztira 326 txirrindularik parte hartu zuten. Horietatik bost baino ez ziren emakumezkoak eta tartean izan zen Mikele Etxekolonea (argazkian ezkerretik hasita lehendabizikoa). 42 kilometroko ibilbidea osatu zuen.

Berdintasuna lantzeko hainbat hitzordu herriz herri

Bertzeak bertze, haur eta gazteendako tailerrak, hitzaldiak eta *Volar* dokumentalaren emanaldiak antolatu dituzte

Donamariako Jauregian urriaren 6an *Konta eta Kanta* tailerra eskaini zuten.

TTIPI-TTAPA

Tailerrak, dokumental emanaldiak, hitzaldiak... Genero berdintasunari lotuta, hainbat hitzordu antolatu ditu Malerrekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak.

Haurrendako tailerrak

Haizea Loira gazteluarrak gidatuta, *Berdintasunari Konta eta Kanta* izenburupean, 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzako tailerrak eginen dituzte Malerreka eta Bertizaranako herrietan. Lehenbiziko saioa irailaren 8an Eratsunen egin zuten, urriaren 6an Donamariak hartu zuen lekukoa eta urriaren 12an Beintza-Labaienen egitekoa zuten.

Tailerrean Haizea Loirak ipuin bat kontatzen du eta hortik abiatuta, hausnarketarako bide emanez, esaldiak sortzen dituzte, baita kanta ere. Hori egiten hurrengoak ezkurrarrak izanen dira, urriaren 25ean. Gainerakoak azaroan eta abenduan izanen dira: azaroaren 2an Urrozen, 8an Legasan, 24an Donezteben eta 29an Zubietan; eta abenduaren 2an Sunbillan eta Iturenen.

Hitzaldiak

Berdintasunari lotuta, hitzaldiak ere antolatu dituzte Gizarte Zerbitzuek. Alde batetik, *Emakumeak plazara* solasaldia eskainiko du Miren Lanzek: azaroaren 2an Elgorriagan, 9an Urrozen, 10ean edo 17an Donamarian eta 22an Donezteben.

Bertzetik, emakumezkoek inauterietan egin duten ibilbidea ikertu duen Aitzpea Leizaolak horren inguruko hitzaldia eskainiko du Sunbillan, Zubietan eta Iturenen, urriaren 18an, azaroaren 30ean eta abenduaren 3an, hurrenez hurren.

'Volar' dokumentala

Indarkeria matxista jasan duten bederatzi andreren lekukotza biltzen duen *Volar* dokumentala ikusteko aukerarik ere ez da faltako. Herri guztietan eskainiko dute, dagoeneko ikusgai izan den Donezteben, Sunbillan eta Zubietan izan ezik. Ez hori bakarrik. Ezkurran eta Legasan dokumentaleko bi protagonista ere hurbilduko dira beraien esperientzia kontatzera eta bilduta-koek eurekin solas egiteko aukera izanen dute.

Lila puntua ferietan

Doneztebeko bestetan egin bezala, azaroaren 15ean egitekoak diren ferietan ere lila puntua paratuko dute.

Tailerrak institutuko ikasleekin

Oraindik datak zehaztu ez badituzte ere, Mendaur institutuko ikasleekin hainbat tailer egiteko asmoa dute. Bertzeak bertze, autoestimua lantzeko ikastaroa, hausturen inguruko tailerra, sexualitateari buruzkoa eta musikoterapia ere egitekoa dute, azken horretan, bereziki kanten letrei erreparatzearen garrantziaz ohartarazteko.

Genero berdintasunarekin lotuta, eskolako paretan mural margotzeko asmoa dute.

Azaroaren 17an egitekoak diren hauteskundeetarako mugimendu gutti

Maiatzeko udal eta kontzejuetako hauteskundeetara zerrendarik aurkeztu ez zen herrietan, azaroaren 17an izanen dute bigarren aukera. Eskualdean, sei udalerriri eragiten die, Eratsun, Ezkurra, Elgorriaga, Ituren, Oiz eta Urrozi, eta astelehen honetan, urriak 14, akitzekoa zen zerrendak aurkezteko epea. Bertzetik, egun horretan hauteskundeak egiteko aukera izanen duten kontzejuak, berriz, Legasa eta Narbarte dira. Lerro hauek idazterakoan, batzuetan zerrendak itxiak zituzten.

Ezkurraren kasuan, aitzineko aldietan aurkeztu izan den taldearen izena mantenduz, Herriko Etxeko martxan esperientzia dutenekin osatu dute taldea, bortzetik lau udal ordezkariak baitira gaur egun: Jaione Zabalo Juantorenak (zinegotzia), Peio Zestau Juantorenak (zinegotzia), Jose Mari Gogorza Jauregik (zinegotzia), Julian Gogorza Jauregik (alkatea) eta Bautista Mariezkurrena Mariezkurrenak osatu dute taldea.

Eratsunen, ordea, berritasuna da nagusi; alde batetik, taldearen izena berria da, Daona, eta horren barne bildu direnak ere berriak dira. Iñaki Estangak, Mari Jose Mitxelenak, Mirian Miguel Antolinek, Olatz Bernalek eta Ana Greñok osatu dute Daona taldea.

Elgorriagan, berriz, hainbat bilkura egin ondotik, hamar bat laguneko lantaldea osatu dute. Lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea zuten horietako zeinek osatuko duten zerrenda; hala ere, «batzar irekiak bultzatuz» funtzionatzeko asmoa dutela iragarri dute.

Iturenen urriaren 8an egin zuten azken saiakera. Badirudi mugimendua badagoela, baina lerro hauek idazterakoan Ttipi-Ttapak ezin izan zuen baieztatu.

Urrozen, herritar kuadrilla elkartu zen urriaren 6an hauteskundeen inguruan solas egiteko egindako bileran, baina ez zuten zerrendarik osatu. Azken agintaldian egon direnek segitzeko asmorik ez dutela adierazi dio Iñaki Juanena alkateak Ttipi-Ttapari.

Oizen, duela lau urteko udal hauteskundeetan, bi talde aurkeztu ziren, Berrikuntza eta Alkartasuna, baina maiatzean ez zen inor aurkeztu eta bide beretik segitzen dute orain ere. Urrozen bezala, Oizen ere, joan den astean, lerro hauek idazterakoan, oraindik zerrenda osatu gabea zuten.

27. ehiza jardunaldi gastronomikoak abian dira

Zortzi jatetxek eta ostatu batek parte hartuko dute abenduaren 1a arte eta argazki lehiaketa ere eginen dute

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoak antolatzen dituen ehiza jardunaldi gastronomikoak urriaren 11tik abenduaren 1era eginen dira. Eskualdeko zortzi jatetxek eta ostatu batek parte hartuko dute 27. edizioa beteko duten jardunaldietan. Izan ere, iaz bezala, *Ehizatu pintxoa* ekimena martxan jarri da, Inurrietako ardotegiaren babesarekin. Ehiza pintxoa eta Inurrieta ardoa lau euroren truke eskainiko dute Arantzako Burlada jatetxean, Iruritako Olari jatetxean, Elbeteko Posadan eta Elizondoko Futbolin ostatuan.

Jatetxeei dagokionez, 8 dira aurten ehiza menuak eskainiko dituztenak: Bortzirietan, Arantzako Aterpeak eta Burlada jatetxeak eta Etxalarko Herriko Ostatuak. Malerrekan, Donamariako Bentak; eta Baztanen, Arizkungo Ordoki erretegiak, Elbeteko Posadak, Iruritako Olarik eta Oronoz-Mugairiko Urgain jatetxeak. Baztan-Bidasoa Turismoak kartel bat eta jatetxe guztiak biltzen dituen eskuorri bat argitaratu ditu, *www.baztan-bidasoa.com* webgunean eta sare sozialetan ere ikusgai daudenak. Material grafikoko irudia iazko argazki sariduna da, *Basurde azpizuna gaztainekin eta reineta saltsarekin*, Javier Salaverriak iaz Elbeteko Posadan ateratakoa.

#comecaza argazki lehiaketa

Ehiza Jardunaldiko V. argazki lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi duenak jatetxe horietakoren batera hurbildu, menua eskatu eta dastatuko duen platerei argazkiak atera eta *info@baztan-bidasoa.com* helbidera bidali beharko du azaroaren 11 baino lehen. Irabazleak Baztan-Bidasoko jatetxeren batean bi pertsonentzako bazkaria dastatzeko aukera izanen du eta argazkia heldu den urteko jardunaldien irudia izanen da. Aurten, gainera, *#comecaza* traolarekin argazki guztiak elkarbanatzeko gonbitea egin du Baztan-Bidasoa Turismoak.

Diana Iniestaren 'Loreak, sagarrak eta besarkadak' ikusgai

TTIPI-TTAPA

Erratzun bizi den Diana Iniesta margolari kataluniarraren *Loreak, sagarrak eta besarkadak* margo-erakusketa ikusgai dago urriaren 1etik 31ra Bertizko Natur Parkean. 2018ko irailetik aurtengo ekainera margotutako 30 lan paratu ditu erakusketan.

Ikastaroak

Baztanen Opor Artistikoak proiektua sortu du berriki margolariak eta urriaren 19tik 22ra eskainiko du bere aurtengo azken margo-ikastaroa eta lau orduko tailerrak eskainiko ditu azaroaren 16an, abenduaren 14an eta urtarrilaren 18an. 2020an AEBra itzuli nahi du ikastera.

Hiru eta hamalau urte bitartekoak dira erabiltzaileak. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Goxali ludotekak urri hasieran ireki ditu ateak

Zerbitzua doakoa da eta ludoteka eta liburutegi zerbitzuaz gain, jolasak, tailerrak eta eskola-laguntza ere izanen dute

TTIPI-TTAPA

Urriko lehenbiziko astean ireki zituen ateak Goxali liburutegi-ludotekak. Aisialdi-gune honen helburua jolasean aritzeko, harremanak eraikitzeko eta irakurketa zein etxerako lanak egiteko espazioa eskaintzea da.

Hiru eta hamalau urte bitarteko haur eta gaztetxoen sozializazio eta aisialdi osasungarria sustatzearekin bat, autonomia, kritikotasuna, sormena, talde lana, ardura, integrazioa eta bestelako gaitasunak lantzeko bitartekoak eskainiko ditu. Zerbitzua doakoa da eta ludoteka eta liburutegi zerbitzuaz gain, jolasak, tailerrak eta eskola-laguntza ere izanen dute.

Ludoteka eta jolas-tailerrak

Haur Hezkuntzakoentzat astelehenetan 17:00etatik 18:00etara eta Lehen Hezkuntzakoentzat 18:00etatik 19:00etara ludoteka zerbitzua izanen da; ostiraletan, berriz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat.

Jolasak eta tailerrak hilabeteko azken ostegunetan eginen dituzte, 17:00etatik 18:00etara; zehazki honako egunetan: urriaren 31n, azaroaren 28an, abenduaren 19an, urtarrilaren 30ean, otsailaren 20an, martxoaren 26an, apirilaren 30ean eta maiatzaren 28an.

Liburutegi zerbitzua

Leitzako liburutegian dagoen liburu edo filmen bat hartzeko zerbitzua ere eskainiko dute. Irakurleek, liburuak itzultzeko, jasotzen diren momentutik hilabeteko epea izanen dute eta eskaerak *prebentzioa@lagagizartezerbitzua.org* helbidera idatzita edo 948 51 08 40 telefonora deituta egin daitezke.

Eskola-laguntza

Beharra duten ikasleentzat eskola-laguntza ere eskainiko dute asteazkenetan. Dena dela, zerbitzua eskolak eta Gizarte Zerbitzuak elkarlanean kudeatu beharko dute. Hortaz, interesa duten familiek berri zehatzagoa izateko horiekin harremanetan jarri beharko dute.

Garagardo festa antolatu dute Umore Onan urriaren 26rako

Hemezortzi euroren truke afari bikaina dastatu eta bost garagardo desberdin edateko aukera izanen dute

TTIPI-TTAPA

Herritar talde baten ekimenez eta Umore Ona Elkartearen babesarekin, garagardo festa ospatuko dute urriaren 26an 21:30etik aurrera.

Edan aurretik, tripa betetzea komeni dela esaten dutenez, bapo afaltzeko aukera eskainiko dute: entsalada, saltxitxak patata purearekin, zerri sahieskia labean erreta, postrea, kafea eta kopa. Bi txartel desberdin jarriko dituzte aukeran. 18 euro ordaintzen dituztenek, menuaz gozatzearekin batera, bost zerbeza desberdin edateko aukera izanen dute (Otsailen, Franciscaner, Leffe Blonde, Ago eta Oharas).

Festan parte hartu baina garagardoa edan nahi ez dutenentzat, 10 euroko txartelak ere jarriko dituzte salgai. Menuaz gozatu eta edateko sagardoa, ardoa edo ura izanen dute aukeran.

Txartelak Amaiarenean egonen dira salgai urriaren 22ra arte, asteartea. Kontutan hartu behar da afaria Umore Ona Elkartean izanen dela eta horregatik salduko den txartel kopurua mugatua dela.

Goizuetatik Hernanira bide zaharrean barrena

Urriaren 19an, 1841eko mapari segika Abañotik Hernanira joateko aukera izanen da. 10 kilometroko ibilbidean, Jose Jabier Etxeberria eta Marian Aranazek eginen dituzte gidari lanak. Abañora joateko autobusa 9etan abiatuko da plazatik. Izena-emate a Amaian.

Umore Ona eta Tutera Kantuz abesbatzen saioa urriaren 27an

Goizuetako Umore Ona eta Tuterako Tutera Kantuz abesbatzek emanaldia eskainiko dute urriaren 27an. 12:30ean hasiko da kontzertua eta bertaratzen direnek abesti ederrak entzuteko aukera izanen dute. Nafarroako iparraldea eta hegoaldea kantuz lotuko dira.

'Bakean dagoenari bakean utzi' emanaldia 26an

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairen eskutik, umorezko bakarrizketak entzun eta ikusteko aukera izanen da urriaren 26an eskolako jangelan. 19:00etan hasiko da eta antzezlanaz gozatu nahi dutenek 3 euroko sarrera erosi beharko dute egunean bertan.

'Emakumeen Lurra' dokumentala eta solasaldia 25ean

Emakume ekoizleak eta elikadura burujabetza gaitzat dituen dokumentala eskainiko dute urriaren 25ean eskolako jangelan. Ondoren, solasaldia izango da Mugarik Gabe+3-taldekoekin. Emakume baserritarren egunaren bueltan antolatutako ekitaldia da.



Zortzi pertsonentzako lantokia izanen da Ganbara. OHIANA KALPARSORO

Ganbara etxetik lan egiten dutenentzat lantoki bihurtu da

Urriaren 25ean gunea bisitatzeko aukera eskainiko dute 19:00etatik aurrera eta kontzertua ere antolatu dute

OHIANA KALPARSORO

Urriaren batetik aurrera Kontzejua eta udal bulegoen gainean kokatutako aretoa zortzi pertsonentzako lantoki bilakatuko da.

Herrian etxetik lan egiten duten pertsonentzako espazio partekatu bat eskaini nahi da. Modu honetan hainbat esparrutan jarduten duten profesionalek jarduera ekonomikoa gune komun batean burutu dezakete. Hauen artean sinergiak sortu eta herriari begira dauden proiektuak sortzea sustatuko da. Landa eremuko bizimodua aldatu egin da eta udal zerbitzu honek garai berrietara egokitzea bilatzen du. Ganbaran lan mahai bat izanen da pertsona bakoitzeko, internet konexioa, argindarra eta kalefakzioa eta komuna eskainiko dituzte prezio itxi baten barnean. Espazio hau edonorentzako irekia izanen da eta interesa duenak Udalarekin jarri beharko da harremanetan.

Urriaren 25ean inaugurazio ekitaldia ospatuko dute 19:00etan. Gunea bisitatu eta Ane Iturbe eta Xabier Arratibelen kontzertu akustiko bat entzuteko aukera izanen da.

'Berrerabiltze, berreskuratze nahiz zaharberritze tailerra' urriaren 31n

OHIANE KALPARSORO

Mendialdea Mankomunitateak hondakinen murrizketa eta berrerabilpena indartzeko tailerrak antolatu ditu urrian. Auzolana eta elkarreragitea da tailer hauen ardatza eta lehendabiziko saioa egina dute dagoeneko.

Urriaren 10ean biltzekoak ziren, *Erosketa ohiturak aldatuz* izenburupean. Bigarren saioa urriaren 31n izanen da eta bertan, etxean hondakin izateko zorian daudenei aukera berri bat ematen saiatuko dira; dakienak ez dakienari erakutsiz.

UTZITAKO ARGAZKIA

Herri-lanean ikasbidaiarako diruaren truke

Ikasbidaiarako dirulaguntza eske jo zuten herriko hainbat gaztek Udalera. Auzolana egitea proposatu zieten eta jo eta su ibili dira lanean, erratza hartuta adokin gainean hondarra zabalduz. Hainbeste izerdi bota ondotik, lanaren ordaina jasoko dute.

6.833,38 euro lortu dituzte uso-postuen enkanteetan

TTIPI-TTAPA

Irailaren 21ean egin zuten Usategietako uso-postuen aurreneko enkantean 4.860 euro lortu zituzten . Enkantera ateratako 24 postuetik 8 hutsik geratu ziren eta 600 eurokoa izan zen enkantean jasotako kopururik altuena. Astebetez, sesteorako aukera eman zuten eta bi postu sesteatu zituzten. Irailaren 28an egin zuten bigarren enkantea eta hutsik utzitako bi postu gehiago ere hartu zituzten. Azkenean, 6.833,38 euroko irabazia utzi dute uso-postuen enkanteek.

ANTONIO MINDEGIA

Bost kinto mahaiaren bueltan bilduta

Urriaren 5ean 1959 eta 1964 artean jaiotakoek bazkaria egin zuten Pake Toki Elkartean. Herriko kontuak dantzan jarri zituzten, garai batekoak eta gaur egungoak. Urteroko hitzordua dute eta argazkian denek duten irribarrea ikusita bistakoa da ederki pasa zutela.

Erleta eskolako argazkiak bildu nahi dituzte urrian

Bertan ikasi edo lan egin dutenei dituzten argazkiak elkarbanatzeko eskaera egin diete

TTIPI-TTAPA

50 urte bete ditu Erleta Eskolak eta hori aitzakiatzat hartuta hainbat ekimen ari dira gauzatzen. Tartean, argazki-bilketari ekin diote. Eskolaren historiako irudiak bildu nahi dituzte, garai desberdinetakoak eta horregatik, bertan ikasi edo lan egin dutenei gordeak dituzten argazkiak elkarbanatzeko eskaera egin diete.

Urrian eginen dute bilketa eta bere aletxoa jarri nahi duenak, hiru modu ditu aukeran: eskolara eramatea, bertan kopia egin ondotik itzuliko diete argazkia; *cpleitza@educacion.navarra.es* helbidera bidaltzea edo whatsappez 680 106 928 zenbakira igortzea.

Bildutako argazkiak azaroaren 30ean egitekoa duten festan jarriko dituzte ikusgai. Ate-irekien jardunaldia antolatzeko asmoa dute, Erleta eskola bisitatzeko aukera nahi emanaz. Argazkiak pasabideak apaintzeko eta oraina eta iraganaren arteko zubilana egiteko erabiliko dituzte.

Mota guztietako argazkiek dute tokia.

UTZITAKO ARGAZKIA

Sastrakek topa, topaketen alde

Irailaren 24an, egin zuten Leitzako Atekabeltz herrigunean Euskal Herriko Jardunaldi feministen aurkezpena. Azaroaren 1, 2 eta 3an Durangon egitekoak dituzte topaketak; *Salda Badago* izenburupean egin dute hitzordua eta horri keinu eginez, salda-brindisa ere egin zuten aurkezpenaren ondotik.

Leitzan eskola-laguntza emateko langilea kontratatuko dute

TTIPI-TTAPA

2019/2020 ikasturtean eskola-laguntza eskainiko du Leitzan Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. Zerbitzua emateaz arduratuko den langilea kontratatzeko, lan-eskaintza argitaratu berri dute. Postuarekin erlazionatutako ikasketak izatea beharrezkoa izanen da eta lan esperientzia eta boluntario lana egin izana kontuan hartuko dute.

Curriculuma Gizarte Zerbitzura eraman edo *prebentzioa@lagagizartezerbitzua.org* helbidera bidali beharko dute urriaren 21a baino lehen.

MENDIBIL BTT

326 txirrindulari Leitzulian

Leitzako Mendibil BTT taldeak antolatzen duen itzulia bizikleta gaineko pesta bihurtu zen irailaren 28an. Egun borobila izan zen eta hobetu beharreko datu bakarra aipatu dute antolatzaileek, «emakumeen parte hartzeari dagokiona». Proba hasi aurretik, *Mikone*ri omenaldia eskaini zioten.

«Gisako herrien arteko zubiak indartzeko gogoz» itzuli da Udala Galestik

TTIPI-TTAPA

Berriki izan dira Leitzako Udaleko hiru ordezkari Galesko Machynlleth herrian eta harremanak sendotu eta hizkuntza gutxituetan bizi diren herriak biltzen dituen topaketa batean parte hartzeko aukera izan dute. Tartean ziren Bretainia edota Irlandatik joandako gonbidatuak ere.

Mikel Zabaleta alkateak azaldu digunez, ideiak eta esperientziak partekatzeko baliatu zuten bidaia: «oso aberasgarria izan da. Hizkuntza gutxituen afera, kultura eta musika, energia iturri jasangarrien alternatibak, herrien arteko elkartasuna eta independentzia egikaritzeko bideak, abeltzaintza, salmeta ereduak...hainbat gai landu ditugu».

Udal ordezkariak Machynllethen.

Irudian Anita Aierdi, 83 urterekin aizkoran. 1988ko jaialdian parte hartu zuen emakume bakarra izan zen. E.IRAOLA

Duela 31 urteko aizkora kolpeen oihartzuna

Aurrera Eguna baliatu zuen elkarteak 1988ko aizkora jaialdi berezian parte hartu zuten 156 aizkolariak omentzeko

TTIPI-TTAPA

Pesta egun handia izan zuten urriaren 5ean Leitzako Aurrera Elkartekoek. Pilota partidak, erraldoiak, haurrentzako zaldi ibilaldiak, dantza taldearen emanaldia, bazkaria, inguru-txoa... izan zituzten egitarauaren barne. Baina, aurtengo Aurrera Eguna hitz bakar batean laburbildu behar bada, ezinbestean aipatu behar da aizkora.

Omenaldia

Aurrera Eguna baliatu zuen Aurrera Elkarteak, eraikin berria ordaintzeko dirua lortzeko 1988an egin zuten aizkora jaialdian parte hartu zutenei omenaldia eskaintzeko. 156 aizkolari aritu ziren jaialdian, leitzarrak guztiak, herrian bertan zein kanpoan bizi zirenak.

Larunbateko omenaldian ere, jendetza bildu zen eta *Luzek* botatako bertsoen ondotik, aizkora kolpeak aditu ziren berriro plazan. Atzera galtza txuriak jantzita, aizkoran aritu ziren Juan Ramon Azpiroz, Ramon Zabaleta, Fermin Villabona eta Anita Aierdi. Patxi Astibia laguntzaile zuela, 83 urterekin aritu zen aizkoran Anita, 1988ko jaialdian parte hartu zuen emakumezko bakarra. Iñaki Perurena eta Julian Zabaleta ere aritu ziren aizkoran eta saioa bukatuta, lore-sorta eskaini zioten Anitari.

Euskaraldiaren II. edizioaren aurkezpena urriaren 17an

Euskaraldiaren bigarren edizioa hastear da eta iazkoaren bide berari eutsi baina berrikuntza batzuk ere ekarriko ditu. Horien guztien berri emateko aurkezpen saioa antolatu dute urriaren 17an, udaletxeko batzar aretoan 19:00etan.

Amaia Jaka izanen da Gizarte Zerbitzuetako lehendakaria

Arano, Areso, Leitza eta Goizuetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lehendakari berria izendatu dute. Amaia Jaka Apezetxeak, Leitzako Udaleko zinegotziak, hartu du ardura. Maialen Apezetxea Etxeberria goizuetarra lehendakariordea izanen da.

Iñigo Alduntzin izendatu dute Iparmankeko lehendakari

Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitateak irail hondarrean egindako batzarrean egin zuen karguen banaketa eta Iñigo Alduntzin Gartzia, Leitzako Udaleko zinegotzia, izendatu zuten lehendakari. Euskal Filologiako ikasketak eginak ditu eta irakaslea da.

Ikastaroetarako izen-ematea zabalik da oraindik

Elkarteko kideek %40ko laguntza dute taldean egiten dituzten ekintzetan eta %20koa kiroldegiko kuotan

PABLO IRASTORTZA

2019/2020 ikasturteko ikastaro gehienak, urri hasieraz geroztik, abian dira. Dena dela, gorputzari edo garunari mugimendua eman nahi diotenek oraindik badute izena emateko aukera. Norberak gustuko duena aukeratu eta 948 45 08 78 telefonora deitu beharko du. Arkupeakentzat deskontu bereziak dituzte. Zehazki, elkarteko kide direnek %40ko beherapena dute taldean egiten diren ekintzetan eta %20 koa kiroldegietako hileroko kuotan. Galtzen utzi ezin den aukera...

Benidormeko bigarren egonaldiaren ondotik hurrengoei begira

TTIPI-TTAPA

Irailaren 30ean, hondarreko astelehenean, Arkupeak elkarteko 40 bidaiari Benidormera joan ziren, urteroko bigarren egonaldia egitera. Poseidon Playa ostatuan hartu zuten lekua eta urriaren 13ra arte bertan egon ziren. Inguruko txokoak bisitatzeko, paseoak emateko... denbora librea izan zuten. Hemendik aitzinera bertze irteera batzuez gozatuko dute: heldu den ortzegunean, urriaren 24an, Gorraizera eta azaroaren 7an Lizarra eta Lodosara joanen dira.

P. IRASTORTZA

Txundituta itzuli dira Italiatik

Arras gustura ibili ziren irail hondarrean eta urri hasieran Italiako iparraldean barna. Ez dituzte aise ahantziko bertan ikusi eta bizitako esperientziak. Bertako hiri, laku, mendi, herrixka eta bista zoragarriek elkarteko kideak liluratu dituzte.

UTZITAKO ARGAZKIA

Hiru eguneko irteera ederraz gozatu dute

Urriaren 1etik 3ra 45 lagunek irteera egin dute. Lehendabiziko egunean Artousteko trenean ibili ziren; bigarrenean Ordesako Cola de Caballo ingurua bisitatu zuten; eta azken egunean Xabierrera joan ziren.

Eguberrietako loteria salgai dute dagoeneko

Urtero bezala, Arkupeak elkarteak abenduaren 22an jokatzekoa den Eguberrietako loterian parte hartzeko txartelak egin ditu eta horiek erosteko deia luzatu dute. Herri bakoitzeko ordezkariei banatu dizkiete eta salgai dituzte. Nahi dutenek eurengana joz eskuratu ahal izanen dituzte. Orain arteko ohiturari jarraiki, txartel bakoitzak bi zenbakirekin jokatuko du: 82.237arekin eta 94.123arekin zehazki. Ea aurten zenbaki eder horiek eskualdean zer errana ematen duten!

ELIZONDOKO FERIAK

2019 / urriak 25-26

Feria giroa dakar larrazkenak

Urri hondarrean hasi eta abendura arte, feriaz feria ibiltzeko aukera izanen dute eskualdean. Urtero bezalaxe, Elizondokoak izanen dira lehenbizikoak, urriaren 25ean eta 26an, eta segidan helduko dira Doneztebe, Lesaka eta Goizuetakoak. Aziendek plazarako bidea hartuko dute eta haien bueltan kontuan eta tratuan aritzeko baliatuko dute hainbatek hitzordua. Behien murrusa, ardien balaka eta astoen arrantzekin batera, saltzaileen ahotsak izanen dira eguneko doinua. Zein baino zein eskaintza hobeak iragarriz, tentazioa eskura jarriko dute. Eta karrikatik epelerako bidea eginda, barrenak goxatzeko tartea ere izanen da ferietan. Horretarako taberna, gozotegi eta jatetxeek prest dute eskaintza berezia.

Azienden bueltan kontuan hasi eta egindako tratuak, saltzaileekin adostutako diru-kontuak, taberna giroko kantu eta kontuak. Zenbat kontu izaten den, ferien inguruan!

INDAUTO TAILERRAK ELITE
Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa
Ongi pasa feriak
Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
T. 948 453 488 · M. 675 324 960
info@indauto.es

BAZTANDARRA, S. COOP.
NEKAZARIEN ZERBITZURA
Pentsuen fabrikazioa, abonoak, gasolioa, fitosanitarioak, aseguruak, nekazaritzarako tresneria eta haziak
ORDOKI AUZOA, z/g · ARIZKUN
T. 948 45 33 10

ESKABAZIOAK
LGONI
650 374 146
ELIZONDO

INTZA TABERNA
Ongi pasa feriak!
T. 948 580 417
BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK

Mendi ostatua
Eguneko menua
Bokatak · Pintxoak · Razioak · Pizzak
Deitu eta egin erreserba!
Goizeko 8etatik gauerdirarte
T. 948 580 313

Tel. 948 452 394
Saskaitz Plaza,
31700 Elizondo
Maite Petrirena
Aseguru agentzia - Agencia de seguros
Allianz

500 abelburu

Merkatu plaza azienden erakusleiho izanen da bertze behin ere. Ez nolanahikoa, 500 abelburu elkarren ondoan ez dira noiznahi ikusten eta. Aurten, banaz bertze, 100 behor, 250 ardi, 50 behi, 20 asto eta 50 poni inguru plazaratuko dituztela aurreikusi dute. Horien bueltan, batzuk ikusmiran, bertzeak tratuan; denentzat tokia izanen da Merkatu plazan.

Lana arintzeko

Negurako prestaketak erraztuko dituzten lanabes guztiak eskuragarri jarriko dituzte Merkatu plaza aldamenean: traktore, motozerra, segadora edota egurra lehertzeko makinak, erraterako. Eskaintza bereziren bat edo bertze ere izanen da, seguru. Azken berrikuntzak edo beti beharrezkoak diren klasikoak, lana arintzeko erabilgarriak denak!

250 postu

Karriketan, postuz postu sigi-saga ibiltzeko aukera ere izanen da. Jantzi, objektu eta jakien 250 bat postu paratuko dituzte; batetik eta bertzetik ekarriak edo mimoz eginak. Poltsikoen galgarri, ea nork eusten dion tentazioari! Ortziralean goiz eta arratsaldez eginen dute azoka eta biharamunean ere *atsoferie* izenez ezagutzen den azoka izanen dute.

ESKISAROI
JATETXEA
ongi pasa feriak!
T. 948 580 013
Jaime Urrutia • ELIZONDO

hirU ostatua
BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin zure eskaera
... betikoa baina ezberdina
ONGI PASA FERIAK!
Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak...
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!
Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -
Santiago 66, 1º - Elizondo - 948 580 122
· Etxebizitza berriak
· Zaharberritzeak
· Hirigintza
· Ziurtagiri energetikoak
· Eraikinen Ebaluazio Txostenak (EET/IEE)
DISEÑADOR
DISEÑADOR CERTIFICADO PASSIVHAUS
www.laborra.com

BB BIOK BAT
TALLERES
Ongi pasa feriak!
www.biokbat.com

Talleres BIOK BAT, SL • Santiago, 85 • ELIZONDO • Tel. (0034) 948 580 898

Barrenak goxatzeko

Aziendak ikusi eta postuz postu ibili ondotik, tragoxka bat egiteko tartea hartuko dute batzuek; bazkaltzeko hitzordua egina izanen dute bertzeek. Azken momentuan, tripa-zorriak dantzan sumatu eta mokadutxoa jatera joanen direnak ere izanen dira. Denentzat buru-belarri aritu dira lanean jatetxe, ostatu eta gozotegiak. Tradizioari eutsiz, garbantzuak azarekin eta usoa saltsan dira gehien eskatzen diren platerak. Baina bertzelako menuak, kazolak eta mokadutxo gazi-gozoak... ere izanen dira aukeran. Eta besta luzatu nahi dutenek ere giro bikaina izanen dute ziur ostatuetan.

Kirolari bere tartea

Elizondoko ferien barne, herri-kirol saioa izaten da urtero. Aurten, Nafarroako 8x8 Goma Gaineko Sokatira Txapelketako kanporaketa jokatuko dute, 17:00etatik aitzinera Elizondoko pilotalekuan. Gizonezko eta emakumezko soka-tiralariak ariko dira: 600 kilotan Beti-Gazte, Berriozar, Antsoain eta Txantreako gizonezkoak eta 520 kilotan, Beti-Gazte, Antsoain eta Txantreako emakumezkoak. Urriaren 19an emanen diete hasiera txapelketari Arbizun eta txapelketako bigarren kanporaketa izanen da Elizondon jokatuko dutena. Azaroaren 2an Leitzan eta azaroaren 9an Lesakan izanen dira hirugarren eta laugarren kanporaketak.

ANZABAL
inmobiliaria

Ongi pasa feriak!

- Zurich Aseguruak
  Autoa, etxebizitza, istripueta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
  Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
  Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
  Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 **ELIZONDO** • T. **948 580 804**
anzabal@anzabal.com • **www.anzabal.com**

BERRO BIDE
MASSEY - FERGUSON
FENDT

NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA TRESNEN
KONPONKETA, ALOKAIRU ETA SALMENTA

Etorri
merkatu plazara
eta ikusi
MODELO BERRIAK!!!

Ongi pasa feriak!

Ordoki industrialdea · 31713 **ARIZKUN**
T. **948 453 343**
administracion@berrobide.com

«Familiei arnasgunea eta erabiltzaileei gune propio bat eskaintzen die Xauli elkarteak»

XAULI BAZTANGO AISIALDI ELKARTEA

Ezintasun psikikoa duten pertsonekin lan egiten duen Baztango aisialdirako taldea da Xauli. 1999an sortu zen elkartea, «hasmenta batean sei hilabeterako aurreikusita zegoen», azaldu digu Maria Tamayo boluntarioak: «baina, arrakasta izan zuen eta hogei urte eta gero hemen segitzen dugu».

Boluntarioak giltzarri

Hamasei erabiltzaile ditu elkarteak eta larunbatero, 16:30etik 19:00etara dute hitzordua. Beraien aldamenenean, monitore eta laguntzaileak izaten dituzte, «denok boluntarioak gara. Boluntariotza taldearen motorra da. Aldizkatuz aritzen gara eta zazpi bat boluntario gabiltza lanean. Laguntzaile puntualak ere baditugu eta eskertzekoa da».

Erabiltzaileek eta familiek aunitz eskertzen duten zerbitzua dela nabarmendu du Mariak: «denendako onuragarria da. Familiei arnasgunea eta erabiltzaileei gune propio bat eskaintzen die elkarteak».

Aspertzeko tarterik ez

Hainbat ekintza antolatzen dituzte urtean zehar: «psikomotrizitatea eta koordinazioa lantzeko tailerrak, egunerokotik atera eta toki berriak ezagutzeko irteera sozio-kulturalak, inguruaz eta naturaz gozatu eta ariketa fisikoa egiteko ibilaldiak, elkarrekin

ELIZONDOko
plazan
EROSKI CITY

Astelehenetik Larunbatera:
09:00-21:00

Santiago 12 · ELIZONDO
T. 948 580 005

EROSKI city
BEA ARRAINDEGIA
esarte

solastu eta elkarlaguntza bultzatzeko ospakizunak... egiten ditugu».

Elizondoko feriak ere, gorriz markatuak izaten dituzte egutegian: «sentsibilizazio kanpaina egiten dugu ferietan, gure postua jarri eta Eguberrietako pinuak eta boletoak saltzen ditugu, larunbatean egiten dugun urteroko zozketarako. Xauli ezagutzera emateko aukera ezin hobea da feria eguna eta arras ongi pasatzen dugu».

Margolanaren zozketa

2014ko uholdeen eraginez izandako galerei aurre egiteko hainbat margolarik emandako artelanak zozketatzen hasi ziren: «Tomas Sobrinok, Xavier Landak, Lesagibelek, Jose Maria Apezetxeak, Koldo Sebastianek, Ana Mari Marinek eta Begoña Durrutyk eskuzabaltasun osoz emandako artelanak zozketatu izan ditugu. Aurten Ana Gonzalezek, *Anandak* egindako artelanak zozketatuko dugu».

Diru-iturri garrantzitsua da zozketa elkartearentzat: «1.200 boleto ateratzen dira, eta urtetik urtera saltzen den kopurua eta ateratzen den dirua aldatzen doa». Horrekin batera, «Xauliko bazkideen kuotak eta erabiltzaileenak eta urtetik urtera aldatzen diren dirulaguntzak (Baztango Udalak, Nafarroako Gobernuak, La Caixak, Cenorrek... emandakoak eta donazioak ere (Jose Mari Imizkoz, Eguzkilore Elkartea) jasotzen ditugu». Diru hori baliatuta elkarteak dituen gastuak ordaintzen dituzte: «erabiltzaileak garraiatzeko taxia, lokala, aktibitateak egiteko materiala, eta urtero egiten dugu asteburuko irteera».

«Xauli ezagutzera emateko aukera ezin hobea eskaintzen digu feria egunak eta arras ongi pasatzen dugu»

Diruz soilik ez, badira Xauli Elkartea laguntzeko bertze moduak: nahi duenak bere denbora librea eskaini dezake monitore bezala puntualki laguntzen, dakien zerbait erakutsiz».

Eskerrak

Eta halakoetan erran ohi den bezala, *ongi erranak gogoan hartu eta gaizki erranak barkatu*. Tarte hau baliatu nahi izan dute eskerrak emateko: «aldez aurretik barkamena eskatu nahi dugu norbait aipatzea atzendu badugu, 20 urte hauetan aunitz dira bere laguntza eta denbora eskaini digutenak eta esaldi honen bitartez mila esker denei».



ELBETEko POSADA
Udazkeneko Feriko
Menu Berezia
Karrikaundi • ELBETE • T. 948 581 519
info@posadaelbete.com www.posadaelbete.com

CARNICERIA
HARATEGUIA
CHARCUTERIA
CIAURRIZ
Tel.: 948 580 257
Jaime Urrutia, 26 • Elizondo

Albaitaritza
www.albaitaritza.com
Tlfno.: 948 580 980
Materiala
Botika
Hazia
Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak
Albaitack
Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak
www.albaitack.com
Tlfno.: 948 506 169
ALBAIKIDE
Tfnoa.: 902 169 169
www.albaikide.com
Albaitari zerbitzua

«Lehiaketetan parte hartzeak lana dakar, baina plaza egokia dira gure lana erakusteko»

JUAN JOSE IÑARREA REKARTE

Baztango abeltzainen artean ezaguna da Juan Jose Iñarrea erratzuarra, baita bere aziendak ere. Ez dituzte alferrik irabazi hainbertze sari. Duela hamabortz bat urte hasi zen abeltzain eta hamar bat urte dira lehiaketetan parte hartzen hasi zenetik: «garai batean lagun bati laguntzera joaten nintzen lehiaketetara. Gero nik jarri nituen behiak, lehiaketetara aurkezten hasi nintzen eta hor gabiltza».

Lanari aitortza

Elizondon egin berri duten behi-azienda piriniotarraren nazioarteko lehiaketa-enkantean, hainbat sari lortu ditu, tartean, Baztango zezen onenari ematen zaiona eta pozik dago: «egiten dugun lana nahiko ongi egiten dugunaren seinale da. Sariak lortzea ongi heldu zaigu kanpora ezagutzera emateko».

Urtetik urtera, lehia biziagoa izaten dela aipatu du Iñarreak: «maila geroz eta altuagoa da eta geroz eta gehiago kostatzen da sariak lortzea. Saiatzen gara gauzak ahal bezain ongi egiten eta probatu gabe ez dago jakiterik. Aurten zortzi abelburu aurkeztu nituen, sei miga eta bi zezen».

Irabazleen ezaugarriak

Abeltzainak baino hobeki ez ditu inork ezagutzen bere abereak: «ttikitatik kontrol lana egiten dugu, arrazari dagozkion ezaugarriak betetzen ote dituen, lasaia den... lehiaketan paper ona egin dezakeela uste dudana begiz joa izaten dut». Lehiaketa baino pare bat hilabete fiteago hasten da aziendak prestatzen: «lehenik sokan ongi hezi behar duzu, gero ahal bezain ongi bazkatu haragiz ongi egon dadin eta lehiaketa baino aste bete fiteago hasita, egunero garbitu, arras itxura ona izan dezan».

Aitzineko lana ongi egina izateak ez du deus segurtatzen: «behiaren jokaerak garrantzia handia du. Ongi desfi-

«Bertakoari balioa eman eta bertakoa kontsumituta bakarrik segurtatzen ahal da gure etorkizuna».

latzeak, epailea begira dagoenean ongi eta zuzen egoteak, posturak...». Horregatik, eguna iristean urduritasun puntu bat izaten duela aitortu du: «jendearen tartetik pasa beharreko momentua nahiko kritikoa izaten da. Ez dakizu behiak nola erreakzionatuko duen. Hezia egonagatik animalia da».

Lanaren erakusleiho

Abeltzainek egunero izaten dituzten lanei, lehiaketarako prestaketa bereziak gehitzen zaizkio: «aziendak

prestatu, lehiaketako egunean batetik bertzera mugitu, bere tokian jarri, garbitu, desfilatzera atera... lan handia dakar, baina, plaza egokia dira egiten duguna erakusteko».

Ferietara laguntzera

Elizondoko udazkeneko ferietara ere eginen du bisita: «lagun bati behorrekin laguntzera joaten naiz» eta Merkatu plazan negoziorako aukera ere sortzen dela aitortu digu: «hartu-emanak egiten dituzu, egun horretan telefonoa eskatu eta gero heldu dira ondoko egunetan tratua egitera». Aziendak etxeratu ondotik, bestarako tartea ere hartzen dute: «bazkaldu eta arratsean besta pixka bat egiten dugu».

Abeltzainen etorkizuna

Lehenbiziko sektorearen egoerari buruz ere galdegin diogu eta baikor solastu da: «Baztanen nahiko motel zegoen egoera baina badirudi gazte batzuk ardiekin hasiak direla lanean... Afizioa badu jendeak. Esperantza badut eta ea segitzen duten etorkizunean ere». Hori bai, abeltzainek ezin dutela bakarrik jardun ere argi du: «jendeak kontu eman beharko luke bertako produktuak jateak zer garrantzia duen. Hura badakizu zer den, non egin den, nola egin den. Bertakoari balioa eman eta bertakoa kontsumitu behar da, horrela bakarrik segurtatzen ahal da gure etorkizuna».

ANTXITONEA
Trinketea

FERIAKO MENU BEREZIA
Garbantzoak
Ajoarrieroa
Aratxe haragia saltsan
Postrea
Nafar ardoa, sagardoa
Kafea eta kopa
23€

Braulio Iriarte 16, Elizondo
948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

EGUR-PROZESADOREA
ORAIN HAUNDIAGOA ETA AZKARRAGOA
TAJFUN
www.tajfun.com

BISITA GAITZAZU ELIZONDOKO FERIETAN!!!

www.arozberri.com
AROZ-BERRI, S.A.
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Fax 948 452 103
irurita@arozberri.com - Ctra. NA-8307, km 0'8 - 31730 IRURITA (Navarra)

Gureauto
TAILERRAK
Mekanika, elektrizitatea,
Ibilgailuen salerosketa
Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

MAÑONEA
GENERALI
KONTABLE, ZERGA,
LAN ETA JURIDIKO
AHOLKULARITZA
GENERALI ASEGURUAK
ELIZONDO (NAFARROA)
T.: 948 581 132 · 606 896 843
www.mainoneaagentzia.com
mainonea@mainoneaagentzia

Malkorra
Txokolatea urrekin egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia
Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

GOÑI
harategia
ongi pasa feriak!
Mendinueta, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

«Elkarlanari esker desagertzear zegoen azienda feria berreskuratu eta indartu dugu»

LUIS JABIER LAURNAGARAI • *GARRA*

Merkatu plazan aziendarik ez. Pausorik eman ezean horixe zen Elizondoko feriek izan zezaketen etorkizuna. Egoerari buelta eman eta bertzelakoa da orain egoera; ferietako ortziralean 500 buru inguru biltzea lortzen da.

Aldaketa horren nondik norakoak aski ongi ezagutzen ditu Luis Jabier Laurnagarai *Garrak*. Ferien antolaketaz arduratzen den taldeko kidea da eta denek denean esku bat botatzen badute ere, zereginak banatuak dituztela azaldu du: «ni azienden aferaz arduratzen naiz».

Elkarlanaren emaitza

Ez zen nolanahikoa izan duela urte gutxi batzuk azienda feriaren jiran izan zuten erronka. Merkatu plazan, urtetik urtera, geroz eta abelburu gutxiago izaten zirela ikusita, hitzetatik ekintzetara jotzeko tenorea zela ohartu ziren: «azienda feria bere kabuz utzia genuen eta desagertzen ari zela ikusi genuen. Feriak hortik heldu dira eta pena zen galtzen uztea, xarma duen zerbait baita. Abeltzainekin bilera batzuk antolatu genituen eta haiek ere zerbait egitearen alde agertu ziren». Topatu zuten abeltzainek behar zuten akuilua: «garraio-gastuak Elizondoko Herriak ordaindu eta bazkari baten truke, aziendak ekartzen segitzeko prest agertu ziren. Horrela, elkarlanari esker desagertzear zegoen azienda feria berreskuratu eta indartzea lortu dugu. Emaitza bistakoa da, Merkatu plaza bete egiten da aziendarekin».

Feria aitzineko lanak

Feriak baino aste batzuk lehenago hasten dira antolakuntza lanean: «abeltzainekin elkartzen gara ortzirale batez eta aziendak ekartzeko modurik izanen duten jakiteko beraiekin solasten dugu. Azienda feria itxura hartzen joaten da hor. Batzuk behorrak, bertzeak ardiak... bakoitzak bere aletxoa jartzen du azoka egin ahal izateko». Denen artean, ez dute nolanahiko kopurua osatzen: «denera 500 abelburu inguru izaten dira: 100 behor inguru, ardiak 250, behiak 50, 20 asto eta poniak 50».

Gero, feria egunaren bezperatan, aziendak egoten diren lekua prestatzen dutela azaldu du *Garrak*: «bizpahiru egun lehenago hasten gara antolatzen. Itxiturak jarri, korreak prestatu... dena ongi antolatuta izateak abeltzainen lana ere errazten du».

Salmenta-postuak

Udazkeneko ferien bertze bereizgarria, herrian zehar jartzen dituzten salmenta-postuak dira: «225 bat salmenta-postu izaten dira». Denei tokia egiteko, puzzlea ongi osatu beharra izaten dute: «txoko guziak ongi beteak ditugu. Aitzineko egunetan bi marrekin markatzen dugu, postu bakoitza non hasten den eta non bukatzen den. Postu denek ez dute neurri bera, banaz bertze, 5 metro ingurukoak dira». Saltzaile bakoitzari zenbaki bat ematen dietela ere azaldu digu *Garrak*, «horrela jendea ortzegunean etortzen da eta badaki non duen bere

Feriak antolatzen dituzten lantaldeko kideak.

txokoa. Postua muntatu eta bi egunez ahalik eta gehien saltzen saiatzen dira».

Feria eguna

Feria eguna iristean ere, goizean, ez dute ardurak albo batera uzterik izaten: «postuz postu neurriak errespetatzen dituztela ikusten ibiltzen gara, ongi kokatuak daudela, ez dutela arazorik sortzen...» eta azienda ferian barna ere egiten dute itzulia, «giroa ikusi eta abeltzainek zerbait behar badute laguntzeko». Bazkaltzeko biltzen dira gero, «kargudunek abeltzainekin batera bazkaltzen dugu eta giro polita izaten dugu gure artean». Tabernetan «sartu-irtena» egin behar izaten dute gero eta aitortu digu «ez da erraza izaten etxera joatea. Hala ere, orain bi aldiz pentsatzen dut juerga bat egin aitzinetik, adinak ez du barkatzen-eta».

Folk Ametsetan zikloaren barne bi kontzertu Elizondon

Urriaren 27an Galiziako folk-taldea eta azaroaren 3an Euskal Herrikoa izanen dira

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura batzordearen eskutik, Folk Ametsetan zikloaren barne, bi kontzertu eskainiko dituzte urri hondarrean eta azaro hasieran Elizondon.

Urriaren 27an, hondarreko igandean, Galiziako Xosé Liz folk-taldearen txanda izanen da; azaroaren 3an, berriz, Euskal Herriko Suakai taldearena. Azken talde horrek antzerkia, musika, zinema eta poesia konbinatuz gozatzeko aukera eskainiko digu, *Raices* diskarekin.



Sukai taldea.

Arizkunenean 19:00etan

Bi kontzertuak Arizkunenea kultur etxean izanen dira, 19:00etan eta ikusi ahal izateko ez da sarrerarik ordaindu beharko.

Autodefentsa tailerra izanen dute larunbatean Elizondon

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko arrakasta ikusirik, Baztango Haize Feministak, Udalaren laguntzaz, aurten ere autodefentsa tailerra antolatu du. Larunbatean, urriaren 19an, zehaztu dute hitzordua Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Egun osoz bilduko dira: goizean 10:00etan eta arratsaldean 16:00etan. Emagin taldeak eskainiko duen tailerrera joan nahi dutenek *baztangohaize-feminista@gmail.com* helbidera idatziz eman beharko dute izena. Azaroan, berriz, hitzaldia izanen dute.

UTZITAKO ARGAZKIA

Nekazaritza Politika Bateratua hizpide

Europako Nekazaritza Politika Bateratuaz eztabaidatzeko Euskal Herriko eragile andana bildu zen irailaren 27an Elizondon. Elikadura sistema osasuntsuak eta landa eremu biziak lortzeko aukerez solastatu ziren goizez zein arratsaldez egindako mahai-inguruetan.

UTZITAKO ARGAZKIA

Egun osoko besta ederra Erratzun

Irailaren 28an egun osoko besta ospatu zuten erratzuarrek: goizean poteoan ibili ziren, ondotik zikiro-jatea izan zuten eta bazkalondoan Hauspolariek taldeak girotu zuen herria. Parrandazaleek, Yurrouz Brothers DJaren musika lagun, bestan segitzeko aukera izan zuten.

Pepe Fernandez D'Arlas zena gogoratu dute

Baztango Santiago Bidearen Elkarteko presidente zen Pepe Fernandez D'Arlasen omenez bildu ziren irailaren 28an. Belateko baselizan meza adituta, bazkaltzeko bildu ziren eta familiakoei argazki bat oparitu zieten.

Gabonetako opariak sortzeko tailerra 29an hasiko da

Amaia Zinkunegiren eskutik, Arizkunenea kultur etxean eskainiko da tailerra, 16:00etatik 18:00etara

TTIPI-TTAPA

Gehiegizko kontsumoa saihesteko eta opariak norberak sortzeko tailerra antolatu du Baztango Udaleko Kultura Batzordeak. Urriaren 29tik azaroaren 26ra eskainiko da tailerra, Elizondon. Bertzeak bertze, osagarriak, apaingarriak, zintzilikariak eta lanparak egiten ikasteko saioak izanen dira, 16 urtetik goitikoei bideratuak.

Amaia Zinkunegi izanen da gidari.

Izen-ematea

Saioak Amaia Zinkunegik eskainiko ditu, 16:00etatik 18:00etara Arizkunenean. Izena eman nahi dutenek bertara joan beharko dute (erroldatuek 60 euro eta gainerakoek 80). Guttienez 8 lagun eta gehienez 12 behar dira.

MAITANE MARITORENA

Hiru eguneko besta bete-beteak Anizen

Urriaren 4tik 6ra besta bete-beteak izan zituzten Anizen. Frontenis txapelketa, zopa jatea, paella eta postre lehiaketa, ginkana, mus txapelketa, Bingoa, karaokea, zikiro jatea... izan zituzten. Umore ona ez zen falta izan eta xingarra janez eta herrian barna ibiliz akitu zituzten aurtengoak.

Florentino Goñi, Joseba Otondo eta Marijo Garmendia aurkezpenean. UTZITAKOA

Udalak Adinekoen Zaintza Plana aurkeztu du

Baztango populazioaren %23,1ek, 1.783 bizilagunek, 65 urte baino gehiago du

TTIPI-TTAPA

Udalak hirugarren adinekoen egoerari buruzko ikerketa sakona egin ondotik, zaintza hobetzeko 23 neurri proposatu ditu. Horrekin batera, Franzisko Joakin Iriarte zaharretxea berritzeko ingurua ere zehaztu du.

Ia laurdenak 65 urtetik goiti

Ikerketan bildutako datuen arabera, populazioaren %23,1ak 65 urte baino gehiago du, denera 1.783 biztanle eta Nafarroako banaz bertzekoa %18,93koa da. 1.783 horietatik %8,3ak, hau da 643 biztanlek, 80 urte baino gehiago ditu.

Zahar-etxeko erabiltzaileak

Zahar etxeak 155 toki eskaintzen ditu, eta banaz bertzeko betetzea 145ekoa da. Horietatik %95ak 65 urte edo gehiago du eta erabiltzaileen %20 ak 90 urte edo gehiago du. Erabiltzaileen jatorriari buruz %60 Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdikoa da, Baztan aldeko oinarrizko gizarte zerbitzuaren eremukoa. Gainerakoak ez dira Bidasoaldekoak, bertze eskualde batzuetakoak baizik.

Etorkizuneko beharrak aurreikusiz

Etorkizunari begiratzeko, ikerketak Baztango oraingo biztanleak eta INEk Nafarroari buruz egin dituen estimazioak hartu dituzte kontuan. Horrela, 2031. urterako 65 urtez gorakoak 2.380 pertsona izanen direla aurrikusi dute (gaur egun 1.867 dira). Modu berean 90 urte edo gehiago izanen dutenak 187 izanen dira (gaur egun 146 dira).

Ikerketak egin dituen proiekzioen arabera, 2028an erresidentzia zerbitzua beharko duten baztandarrak 61-101 artean izanen dira; eguneko egoitzaren eskatzaileak 21-30 artean eta etxez etxeko erabiltzaileak 29-40 artean.

Ekintza plana

Diagnostikoa egitearekin batera, ekintza plana diseinatu dute. Horren helburuak hiru dira: batetik, kopuruz Baztango biztanleriara egokitutako zerbitzu batzuk ezartzea; bestetik, hirugarren adinekoendako zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea; eta azkenik, adinekoei ohiko ingurunean, ahal bezain luze etxean, egoteko bidea ematea. Planean bildutako 23 ekintzak ondoko lau urteetarako tenporalizaturik heldu dira eta horien betetze maila neurtzeko adierazleak ere zehaztu dituzte. Datu guztiak eta diseinatutako ekintzen nondik norakoak Udalaren web orrialdean daude ikusgai.

Larrazken Kulturala azken txanpan da dagoeneko

Jo ala Jo kultur taldearen eskutik, Larrazken Kulturala ospatzen ari dira Arizkunen. Urriaren 7az geroztik goizez eta arratsaldez sagar biltzeak eta dolareko lanak egiteko auzolanean ari dira eta heldu den igandera arte egunero bilduko dira. Parte hartu nahi dutenek 670 72 09 12 telefonora deitu edo idatzi beharko dute. Bien bitartean, ortzegun ortzirale eta larunbatean ikastaroak, sagar-jotzeak, dantzak... izanen dituzte.

Ikastaroa, dastaketa, dantzak eta aunitzez gehiago

Ortzegunean, urriaren 17an, 19:00etan sagar-dastaketa ikastaroa izanen dute Gamioxarrean. Gabriel Durrutik, Eztigar Kooperatibako kideak, eskainiko duen ikastaroan Baztanen aurki daitezkeen zenbait sagar bereizten eta dastatzen ikasiko dute. Biharamunean, *Lanetik musikara* goiburupean, sagar-jotzea, tinkatzea eta kupeleratzea izanen dute hurbildu nahi duten guztiendako. 17:00etatik 20:00etara luzatuko da hitzordua. Larunbatean borobilduko dute besta, kirikoketa jotzearekin. Mutil-dantza herrikoiak eta txalaparta herrikoia izanen dute plazan. 12:00etan, Dolareko lanak akitu ondotik, zehaztu dute zita.

Familiendako plastika lantegia azaroan

Larunbat arratsaldetan, 17:30etik 19:00etara, bilduko dira Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

La Chincheta Bruna elkarteko Sonia Ilzarbe eta Eneko Perezen eskutik, bortz eta hamaika urte bitarteko familiendako plastika lantegia izanen dute azaroan Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Larunbatetan, hilaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean bilduko dira, arratsaldetan, ordu eta erdiz, 17:30etik 19:00etara. Ikastaroa eman ahal izateko, guttienez hamar lagunek eman beharko dute izena eta 25 baino gehiago ez dituzte onartuko.

Izen-ematea

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako lantegian izena eman nahi dutenek Arizkuneneara jo beharko dute eta prezioa partaide kopuruaren araberakoa izanen da. Bi partaidek 51, hiruk 76 eta lauk 90 euro ordaindu beharko dituzte.

Bertakoek merkeago

Baztanen bertan erroldatuta daudenendako prezioak merkeago izanen dira: bi lagunekoko familiek 37, hirukoek 51 eta laukoek 62 eurotan, zehazki.

Hondakinen ordainketa egiteko epea zabalik da

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak 2019ko bigarren seihilekoari dagokion hondakinen kudeaketa-kostuak ordaintzeko epea zabalik dela jakinarazi du. Helbideratuei azaroaren 8an kargatuko zaie emandako kontura; helbideratuta ez daudenek, berriz, CaixaBank edo Rural kutxan egin beharko dute ordainketa, Udalak postaz bidaliko dien ordainagiria aurkeztuz. Azaroaren 8a, bigarren ortziralea, izanen da hondarreko eguna. Epe hori pasatuz gero, %5eko gainkostua izanen du.

ELIZONDOKO ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

Pilotaleku bete irribarre Ene Kantakekin

Elizondoko eskolako guraso elkarteak antolatuta, Ene Kantak taldearen 'Satorjator' ikuskizunaz gozatu zuten irailaren 28an, hondarreko larunbatean, Baztan pilotalekuan. Emanaldia arras gustagarria izan zen eta horren lekuko izan ziren ikusleen aurpegietan ikus zitezkeen irribarreak.

Baimendutako mendiko suak egiteko epea zabalik da

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, mendietan suak egiteko sasoia ailegatu da eta Udalak, arriskuak saihesteko, baimenak eskatzeko epea ireki du. Iaz 685,93 hektarea erre ziren Baztanen, horietarik 444h. baimenik eskatu gabe eta kontrolik gabe, kalte eta arrisku dezente sortuz.

Baimenik eta kontrolik gabe egindako erreketarik handiena Almandozko Libus ingurukoa izan zen, 40 hektarea erre ziren eta sua etxe baten ondoraino ailegatu zen, lehor bat errez, etxeko egur-pila… Lekarozeko Sagarbilen ere Ikastolako haurren hariztia kaltetu zuten. Hori horrela, suen kalteak murritzeko baimena eskatzea beharrezkoa dela ohartarazi nahi du Baztango Udalak.

Mendiko suei buruzko hitzaldia

Mendiko suen eztabaidaren harira, mintzaldi bat ere prest dute. Elosegik *Mendiko suak. Gerorik gabeko iraganeko ohitura bat? Mendia iraunkorki kudeatzeko tresna bat* izenburua duen liburuxka aurkeztuko du azaroaren 22an.

Dolores Redondok azken lana aurkeztu du

Dolores Redondok Baztango Trilogiaren aurrekari den *La cara norte del corazón* eleberria aurkeztu zuen urriaren 2an Elizondon. Aitzinetik Recreo musikabandak eta Endika Beltranek harrera egin zioten.

Kultur jardueretarako dirulaguntza deialdia egin dute

Eskaerak aurkezteko epea zabalik da azaroaren 7a arte eta oinarriak web orrialdean eskura daitezke

TTIPI-TTAPA

Udalak Baztango elkarteek 2019an eginen dituzten kultur jardueretarako dirulaguntzak emanen ditu. Deialdi honen helburua, formakuntzak (ikastaroak, hitzaldiak...), sormen-lanak (erakusketak), lan artistikoak edota euskararen erabilerari laguntzen diotenak sustatzea da eta herritar guztiendako irekiak diren jarduerak izan beharko dute.

Betebeharrak

Dirulaguntzak irabazi asmorik gabeko elkarteei bideratuak dira eta gehienez ere kultur jarduerak duen kostuaren %50a jasoko dute.

Azaroaren 7a arte

Interesa dutenek Balleko Etxean bertan aurkeztu beharko dute eskaera, baita gastuen justifikazioa ere. Azaroaren 7a izanen da hondarreko eguna eta dokumentuak astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara eraman daitezke. Informazio gehiago nahi dutenek deialdi osoa Baztango Udalaren web orrialdean kontsultatu ahal izanen dute.

Joan den urteko parte-hartzaileak. ARTXIBOKOA

Aire zabaleko pintura lehiaketa azaroaren 3an eginen dute Elizondon

TTIPI-TTAPA

Kasino elkarteak antolatuta, aire libreko pintura lehiaketa izanen dute azaroaren 3an Elizondon. 16 urtetik goitikoei bideratutako lehiaketa izanen da eta aurten Arraioz, Oronoz-Mugairi eta Almandozko txokoak, parajeak eta eraikinak izanen dira gai. 08:30ean hasiko da eta lanak 14:30ean aurkeztu beharko dira. Ondotik, margolariak, horien lagunak edo Kasinoko kideak bazkarian bilduko dira. Irabazleak 800 euro jasoko ditu saritzat; bigarrenak 400 euro; eta Baztango artistak 150. Lehenbiziko bi lan sarituak Kasino elkartearentzat izanen dira.

IXABEL ALEMAN

Herrietako eskolen besta Amaiurren

Baztan eta Zugarramurdi eta Urdazubiko herrietako eskolek besta eguna izan zuten irailaren 29an Amaiurren. Harrera gisa, haurrek bi bertso kantatu zituzten plazan eta ondotik bi ibilbide izan zituzten aukeran. Ederki bazkaldu eta gero, musika eta jolasez gozatu zuten. Iruritan eginen dute 2020an.

NEREA MORTALENA

Urriko zikiro jendetsua Arraiozen

Urtero bezala, ostatuko atean egiten den zikiroa izan zuten urri hasieran Arraiozen. Eguraldia lagun, 114 lagun bildu ziren mahaiaren bueltan eta giro ederra izan zuten. Zikiro goxo-goxoa dastatu bitartean kontu-kontari aritzeko aukera izan zuten herritarrek.

XX.mende hasieratik bederen irekita zegoen estankoa. MARIFA ETA KORO

Ibilbide luzea izan duen estankoa betiko hetsi dute

Malen Urrutiak, Etxenikeko nagusiak, estankoa hetsi du betikoz eta orain tabakoa Ansalasen salduko dute

MARIFA ETA KORO

Hetsi berri zaigun denda honek historia luzea eta aberatsa izan du.

XX. mende hasieran irekita

Badakigu XX. mende hasieran, bederen, irekita zegoela, Juanito Barrenetxe nagusi baitzuen (Malenen aitatxi). Orduan herriko denda garrantzitsuena zen, salmenta-denda arrunta izateaz gain, txokolatea egiten zuten, eta txokolatea edan ondotik hartzen ziren *boladuak* ere egiten zituzten (azukre--koxkorrak). Ezkoa ere egin izan zuten, bai etxeak argitzeko, baita elizarakoz ere. Ez dakigu zuzen noiz, baina Gerla Zibilaren aitzin Juanitok estankoa jarri zuen, tabakoa eta posta-zigiluak saltzeko. Eta 50ean okindegia ere jarri zuten. Denda arruntetan saltzen ziren gauzez gain, arropak egiteko oihalak ere saldu zituzten.

Erreferentzia handia

Plaza erdian kokaturik, Etxenikea eta Malen beti izan dira herriko erreferentzia handia. Orain, eskerrak ematea merezi dute. Hemendik aitzinera tabakoa Ansalasen salduko dute.

Antzeki taldekoak, garai bateko sukalde baten giroa islatzen. MARIFA ETA KORO

600 lagun inguruk Korrontziren Nafar Loreak emanaldiaz gozatu dute

MARIFA ETA KORO

Sekulako saioa eskaini zuten eskualdeko eta Euskal Herri osoko musikari eta dantzariek urriaren 5ean, lehendabiziko larunbatean, herriko Sorginen Lezean.

Ehun dantzari eta musikari baino gehiago

Korrontzi taldearekin batera, Lesakako Musika Banda; Atarrabiako abesbatza; Berako Gure Txokoa, Leitzako Aurrera, Sarako Zazpiak Bat eta Ataungo Otsoak dantza taldeak; Tafallako dantzariak; Arratiako erraldoiak: eta Dani Conde (gaita eta whistlea), Leturia (pandereta) eta Garikoitz Mendizabal (txistua) musikariak bildu ziren. Denera ehun lagun pasatxok parte hartu zuten *Nafar Loreak* goiburupean antolatutako kontzertu ikusgarrian.

Urteberri egunean ETBn eskainiko dute

Jende alde polita etorri zen ikustera, guztira 600 bat lagun. Dena dela, ikusi ez dutenek heldu den urteko Urteberri egunean ikusteko aukera izanen dute, ETBn emanen baitute.

Herriko antzerki taldekoek ere parte hartu zuten

Herriko antzerki taldeko batzuek ere parte hartu zuten, ez ikuskizunean zuzen-zuzenean, baina bai kisu-labearen gainean, garai bateko etxeen sukaldeko giroa islatzen: batzuek lurreko-suaren inguruan egiten ziren kalakak eta lanak erakutsi zituzten; bertzeek opilak prestatu zituzten; artoa bihitzen, arropak josten edo artilea lantzen aritu ziren gainerakoak. Guztien artean irudi ederra osatu zuten.

Taupada taldearen eskutik ikuskizun ederra izan dute

Badira urte batzuk ez dela Titiriteroen topaketa antolatzen, baina gisa hortako giroa bizi genuen irailean. Karriketan eta museoan antzerkia, musika eta txontxongilo ikuskizuna eskaini zuten.

Yolanda Arrietaren ikusgarriarekin denak loriatuak ziren. P. BASTRES

Matahami argitaletxearen erakusmahaia. P. BASTRES

Sekulako arrakasta izan du Liburua familian 6. edizioak

Urriaren 6an Larreko gelan iragan da, eta 'Errenkuratzen gaituzten animaleak' izan da gaia

PIERRE BASTRES

Sekulako arrakasta izan du *Liburua familian* egitasmoaren seigarren edizioak. Urriaren 6an Larreko gelan iragan da, *Errenkuratzen gaituzten animaliak* gaia zutela. Lehenbiziko edizioa antolatua zuten orain dela 6 urte, bere 30. urtemuga ospatzen zuela Senpereko liburutegiak. Orain Mediateka bilakatu da, eta ekitaldia bera ere aldatu da.

Guraso eta haurren elkarretaratzea da helburua, liburu eta irakurketaren inguruan, aktibitate mota ainitz eskainiz. Alde batetik, eskualdeko mediatekek, argitaletxeek eta erakundeek erakusmahaiak atxiki zituzten, eta bertze aldetik irakurketa eta ikusgarriez gozatu ahal izan zuten ikusleek.

Orotarat 15 erakusmahai ziren, bortz argitaletxe, Azkaine, Ziburu eta hemengo mediateka zonbait barne. Yannick Audot Mediatekako arduradunaren hitzetan, «arras kontent gara, zeren eta horrenbertze jenderik ez genuen sekula izan, eta iduriz egonaldia gustuko izan dute! Gainerat, aurtengoan abantzu aktibitateen erdia eskuaraz zen, eta familia eskualdun ainitz hurbildu zaizkigu».

Bere argitaletxea aurkezteko, mahaia atxiki zuen Julie Mugika urruñarrak, *Matahami* izenekoa. Harek adierazi zuen bezala, «ez dut urriki etortzea, ibiltari ainitz baziren goizean, eta familia gehiago arratsaldean, irakurketa eta ikusgarriendako. Nik 2-8 urte arteko haurrendako albumak sortzen ditut, eskuaraz baina itzulpenarekin, eskuara menperatzen ez duten gurasoek ipuinak ulertu ahal izaiteko. Helburua eskuararenganat hurbilaraztea da, eta ez jakitearen lotsa gainditzea. Holakoekin solastatu ahal izan dut, eta eskuara ongi jakin ala ez Yolanda Arrieta ikusgarriarekin denak loriatuak ziren!».

Yannick Audotek ere Yolanda Arrietaren erakargarritasuna azpimarratu du: «Ikusi behar da nola mugitzen den eta zer nolako atzartasuna sortzen duen, erakargarria da egiazki!».

Bertze kontalari eta artisten lana ere arras preziatua izan zen: Amaia Henebutte eta Kiribil Konpainia, Lulu la Bouquineuse, Yoanna Diaz, Marco Toto eta gainerakoa. «Orohar, igande goxo bat iragaiteko parada izan da, ikasteko eta gozatzeko gutarteko giroan», dio Mediatekako arduradunak.

'Arnasa gara' kanpaina hasi du UEMAk eta 'Kartzela' seriea aurkeztuko du

TTIPI-TTAPA

UEMAk, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek, eta hainbat udalek Arnasa gara kanpaina aurkeztu dute. Proiektuaren helburua da euskararen arnasguneetako biztanleen ahalduntzea da, aitortza eta kontzientziazioa indartzea, jabetu daitezen gune horiek euskararen indarberritzean duten garrantziaz.

Ekimenak bi fase izanen ditu. Lehenengoan arnasguneen ahalduntzea eta aitortza bilatuko da, eta horretarako kanpaina bat abian jarriko da ekimena azaltzeko eta honen osagai nagusietako bat izanen den *Kartzela* serie digitala herriz herri aurkezteko. Serie honetan aktore izanen da Juanen Saralegi lesakarra. Bigarren fasean, berriz, ekimena Euskal Herri osora zabalduko dute, arnasguneen errealitatea eta garrantzia ezagutzera emateko. Proiektuan Nafarroako Gobernuak –Euskarabidearen bitartez– eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak ere parte hartzen dute.

UEMAko lehendakari Josu Labakak nabarmendu duenez, «*Arnasa gara* kanpainak euskararen arnasguneak Euskal Herriarentzat zein garrantzitsuak diren nabarmendu nahi du. Herria da gorputza, hizkuntza bihotza. Badakigu. Eta herri honen berezko hizkuntza modu naturalean arnasguneetan ari da taupaka, sendo eta osasuntsu. Horregatik, arnasguneen garrantzia zabaltzeko eta herritarrek horren kontzientzia hartzeko beharra ikusi dugu. Batetik, arnasguneetako biztanleek kontzientzia har dezaten. Bestetik, gainerako euskal herritarrek ere arnasguneak babestea eta hedatzea euskararen normalizaziorako ezinbestekoa dela jakin dezaten». Ekimenaren inguruko informazioa *www.arnasagara.eus* webgunean kontsulta daiteke.

SANTU GUZTIEN EGUNA

Azaroak 1

Argazkia: Ataria.eus

Nondik heldu da hildakoei loreak eskaintzeko ohitura?

Azaroak lehen pausoa ematearekin bat, usain gozoz eta kolorez jantziko dira eskualdeko hilerriak. Inork gutxik daki zein den hildakoei loreak eramateko ohituraren jatorri zehatza, baina, etxekoak, gehienetan emakumezkoak, hori egiten ikusi eta ondorengoek ere mantendu duten usadioa da. Ordu batzuetan urte osoan adina jendek eginen du joan-etorria hilerrira. Lehenbizi etxekoen eta lagunen hilarriari bisita; ondotik, gainerakoei begirada, bai baitago zer ikusia.

Landareak: babesa eta hildakoari eskaintza

Hainbat adituk errana da, landareak betidanik babes elementu gisa erabili izan direla. Cro-Magnon garaian, pertsona bat lurperatzean landareak jarri ohi ziren ehortz-lekuaren gainean. Milaka urte geroago, hildakoak eliza barnean lurperatzen hasi zirenean, loreak ez, kandelak eta ogia eraman ohi ziren jarlekura, huraxe baitzen benetako hilerria. Urteko egun batekoa baino, elizako ospakizun guztietako eskaintza.

Ohiturak eraberrituz

Gerora, hori transformatu eta loreek hartu dute ogiaren eta argiaren tokia. Lore-eskaintza hildakoa gogoan izateko modua bihurtu da; aldamenetik joandakoari eskaintzen zaion maitasun keinua. Horren erakusle da, lore-eskaintza hori hilerrietatik kanpo ere egitea: hilobiratu ordez, hildakoa erraustea erabakitzen dutenak geroz eta gehiago direnez, lore-sorta hauek errautsak banatutako tokira eramateko ohitura zabaltzen ari da.

Lore-denda ESTHER
Larunbat arratsaldeak eta igandeak irekia
Krisantemoak, azaleak, ziklamenak
zentru artifizialak eta naturalak
ENKARGUAK HARTZEN DIRA
Bisitatu urtero bezala gure postua elizondoko ferietan
NARBARTE • T .948 59 22 00

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK
URRIAK 26 eta LURRAREN EGUNEAN IREKIA egun osoz
ZU loredenda dekorazioa osagarriak
Altzate, 33
31780 BERA
zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

OMISAINDURAKO
LORE ETA LANDARE
ESKAINTZA ZABALA
BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Erreserbatu
omisaindu egunerako loreak
eta mintegian gordeko dizkizugu
Astelehenetik larunbatera:
09:30-13:00/16:30-19:30
Igandeak:10:00-13:00
Otsango auzoa · LESAKA
T. 948 637 826



Lore bakoitzeko maitasun keinu bat

Atzean gelditu dira jendeak etxean zaindutako krisantemo edo urreliliak, *kanposantu-lore* izenaz ezagutzen direnak, hilerrietara eramaten zituzten garaiak. Egun, txikiagoak ala handiagoak jendeak loreak erosten ditu egun honetarako. Horren ondorioz, loradendetan eta haztegietan, egun bakarrerako, urteko bertze sasoi batean asteetan egiten duten lana egin behar izaten dute. Mota guztietako eskariak izaten dituzte eta guztiei erantzuteko milaka lore eduki behar dituzte prest; bezero bakoitzaren nahietara ahalik eta hobekien egokitzeko.

Huts egiten ez duten klasikoak

Krabelinak, krisantemoak eta urreliliak izaten dira gehien saltzen direnak, batez ere zuri-gorriak. Udazkenean loratzen diren lore dotoreak dira eta denbora dezentean fresko mantentzen dira. Horiekin batera, arrosak eta margaritak ere aunitzek aukeratzen dituzte, lore-sorta benetan ederrak osatuz.

Aukera berriak

Ez dira aukera bakarra, azken urteetan geroz eta gehiago ari dira eta zabaltzen lore-sorta pertsonalizatuak. Gure gustuak, hildakoarenak edo lore eta koloreen esanahiak kontuan hartuta lorezainek konposizio bereziak osatzen dituzte; benetako maisulanak. Hori dela eta, urtetik urtera kolore deigarriagoak erabiltzen dituzte: morea, fuksia, arrosa, horia.. Lore-sorta klasiko edo berritzaileenei elementu berderen bat gehitzea ere gomendatzen dute, konposizioak itxura osatuagoa lortzeko: hostoak, iratzeak, kamelia adarrak...

Loreek gehiago irauteko hainbat aholku:

- Loreak garaiz eskatu baina egunean berean edo bezperan jaso.
- Urez betetako lorontzian paratu.
- Txoko fresko bezain argitsuetan kokatu.
- Ura maiz aldatu eta aiseago hartzeko zurtoina moztu.

AUKERA HANDIA

kalitatezko produktuetan

Domisaindu egunerako Loreetan eskaintza zabala

- Ongarriak eta ongarritzeko gaiak
- Landareak, loreak, fruitu-arbolak
- Lore-konposizioak
- Etxe barrurako zein kanpoko landare eta arbolak
- Dekorazio osagarriak, loreontziak eta jardinerak
- Lorategirako erremintak

Landiflor

Landiflor zure loredenda egunero irekia:
9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

VENTA PEIO®
Zure erosketa gunerik hoberenak Euskal Herriko bihotzean

Dantxarinea Ibardin Valcarlos Behobia
www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)

Mahai-inguruko kontuak gozatzeko

Azaroaren 1a, familia edo lagunekin mahaiaren bueltan biltzeko eguna ere izaten da. Hilerrira egin beharreko bisita aitzakiatzat hartuta, jaioterrira bueltan joateko edo familiako bazkariak antolatzeko baliatzen du jende aunitzek eguna. Eta zer litzateke ospakizun bat mokadu goxorik gabe? Santu Guztien Egunak baditu ospakizun honekin zuzenean lotzen ditugun gozoak. Nork ez ditu dastatu santu-hezur edota haize kruxpetak? Zenbait gozotegitan urte osoan zehar eskaintzen dituzten arren, batez ere, egun hauen bueltan erosten dira. Eskualdeko gozotegietan eskaintza zabala izaten da: krema, txokolate edo esne-gainez betetako haize-kruxpetak; marmelada, txokolate edo aingeru-adatsez betetako santu-hezurrak... Gustukoenak aukeratu edota zabaldu ahoa zapore berriei. Kosk egin eta gozatu!

Kolpez kolpe zizelkatutako harria

Loradenda eta gozotegiak ez ezik, eskualdeko hargintza enpresak ere buru-belarri ari dira lanean. Nabari da jendeak Santu Guztien Egunerako txukundu nahi izaten dituela bere senide eta lagunen hilobiak. Udazkenean hilerrietako oroitarriak edo eskulturak egiteko eta moldatze edota mantentze-lanetarako eskariak dezente areagotzen zaizkie.

Horretarako, harri-naturala (Baztango harri gorria, Debako harri beltza, Cuco harria, Pitillas harria...) erabili izan dute urtetan. Gaur egun, hormigoi inprimatua ere erabiltzen dute. Harri naturala baino aunitzez merkeagoa izateaz gain, arras iraunkorra da eta ez du mantentze-lan berezirik behar. Materiak bata edo bertzea aukeratuta, gurutzeak edo hilarriak dira egun horretarako gehien egiten direnak eta herri bakoitzak dituen arauak kontuan hartu behar izaten dira. Hori bai, pieza bakoitza bakarra izaten da; kolpe bakoitza neurtuz osatzen den artelana.

Usoaren Astea antolatu dute urriaren 20tik 25era

Igande eguerdiko desfileaz gain, heldu den astean hainbat hitzordu prestatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Urte guztiz bezala, aurten ere ekitaldi franko antolatu ditu Sarako Usoaren Kofradiak Usoaren Astearen karietara. Igande honetan, urriak 20, hasiko dira kofradiako kideek eginen duten desfilearekin eta heldu den ortziralera bitarte, urriak 25, eskaintza zabala prest dute.

Kofradiakoen desfilea. JOKIN ELIZALDE

Igandean, kofradiak urteko egun handia ospatuko du. 12:00etan plazan desfilea eginen dute. Biharamunean, urriak 21, 18:00etan esku huska pilota partida jokatuko dute plazan eta asteartean, hilak 22, herri-kirol saioa antolatu dute 18:30ean plazan.

Asteazkenean eta ortziralean, urriak 23 eta 25, 11:00etan usategiak bisitatzeko aukera izanen da. Horretarako aitzinetik izena eman beharko da Turismo Bulegoan. Ortzegunean, berriz, 10:00etan eliza eta kanpandorrera bisita-gidatua eginen dute aitzinetik Turismo Bulegoan izena ematen dutenekin. Eguna borobiltzeko, 19:00etan Erlauntza abesbatzak kantaldia eskainiko du elizan.

Horrez gain, aipatu behar da, herriko hainbat jatetxetan usoekin lotura duten jatekoak dastatzeko aukera izanen dela Usoaren Astean.

XILABA

Giro ederra Xilabako bertso-saioan

Biziki giro ederrean joan zen irailaren 28an trinketean egin zen Xilaba txapelketako saioa. 4koplasara taldeak Ezkorbrutak zirikatzeko baliatu bazuen ere, azken horiek Hazparneko saioko epaia ez zutela onartzen adierazi zuen. Gainerakoan, bertso ale politak utzi zituzten. 4koplasara gailendu zen.

Zahar-etxeko langileek greba egin dute

«Lanerako jendea eskas» direla diote zahar-etxeko langileek eta haserre daude, gisa horretara, «ezin diegulako behar bezalako zerbitzua eskaini zahar-etxeko erabiltzaileei». Halaxe adierazi diote langileek Ttipi-Ttapari. Arazoa, ordea, ez da oraingoa, duela bi urte hasi ziren protestekin, eta oraindik ez omen dira moldatu. Hala, urriaren 8an, Baionako ospitaleko grebarekin bat eginez, herriko zahar-etxean erabiltzaileekin lan egiten dutenek greba egin zuten. Gaur egun, guztira 80 bat langile dira Saran eta 111 erabiltzaile.

Zahar-etxeko langileak protestan, iaz.

Haur-bilgunea urriaren 21etik 31ra zabalduko dute

Haurren opor egunak tarteko, Herriko Etxeak haur bilgunea irekiko du urriaren 21etik 31ra, astelehenetik ortziralera 07:30etik 18:30 arte. Jarduerak, berriz, 09:00etatik 17:00 arte eginen dituzte. Horien artean, yoga, kirolak, eskulanak, film emanaldiak, mendi martxak eta bertzelako ateraldiak eginen dituztela iragarri dute. Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrentzat izanen da zerbitzua, bereziki lanean ari diren burasoen seme-alabentzat eta gehienez 40 erabiltzaile onartuko dituzte.

Kontrabandisten lasterketa bikoitza eginen dute asteburu honetan

TTIPI-TTAPA

Mendi lasterketa maite dutenek, horretarako aukera ezin hobea izanen dute asteburu honetan Urdazubin, bi lasterketa antolatu baitituzte gazteek eta Udalak: larunbatean, gaueko lasterketa eta igandean, maratoi erdia.

Gaueko lasterketa

Duela hogei bat urte, proba hau antolatzen hasi zirenei omenaldia eskainiz, 9,5 kilometroko lasterketa eginen dute larunbatean, urriak 19. 19:45ean abiatuko da 500 metroko malda positiboa duen lasterketa.

Maratoi erdia

Igandean, berriz, 22 kilometro eta 1.200 metroko malda duen maratoi erdia eginen dute. 10:00etan abiatuko dira lasterkariak eta tartean, errekak, zubiak, bidexkak, tontorrak eta bertze hainbat txokotatik pasatzeko aukera izanen dute.

Izen-ematea

Parte hartu nahi dutenek *play.sport-madness.com* atarian eman beharko dute izena. Antolatzaileek iragarri dutenez, kirolariek bi lasterketetan edo bakarrean parte hartzeko aukera izanen dute, eta garai bateko kontrabandistak gogoan, hasierako 500 metroetan eta helmugara sartu aitzineko metroetan zakua bizkarrean eraman beharko dute.

Asteburua borobiltzeko, larunbat gauean hirugiharra eta txistorra eskainiko dituzte eta igandean luntxa parte-hartzaileentzat, horien laguntzaileentzat eta boluntarioentzat. Informazio gehiago nahi duenak Arantxa Blancori galdegin diezaioke, 659 18 94 20ra deituz edo *arantxa@sport-madness.es* helbidera idatziz.

Txapeldun eta txapeldunordeak, antolatzaile eta laguntzaileekin, sari banaketaren ondotik. UTZITAKO ARGAZKIA

Etxeberria III.a eta Saldias Nafarroako txapeldun izan dira

Elizondon jokatutako finaletan, lehen mailan Zeberiorekin eta promozio mailan Aldaberekin irabazle suertatu dira

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Nafarroako erremonte txapelketako finalak jokatu zituzten urriaren 4an, Elizondoko Baztan pilotalekuan, ADANO elkartearen aldeko jaialdian. Lehen mailakoan, Urrizaren ordez aritu zen Zeberio II.ak eta Joxe Jabier Etxeberria III.a doneztebarrak 35-30 irabazi zieten Xanti Uterga doneztebarrari eta Azpirozi. Promozio mailakoan, Aldabe eta Aimar Saldias oiztarrak ere 35-30 irabazi zieten Barricart eta Julen Larretxea doneztebarrari.

Finalak hasi baino lehen, Elizondoko abesbatzak kantatu zuen. Ondotik, Erremonte Fundaziotik ateratako lau erremontelariek promozio mailako finala jokatu zuten. Maila handiko partida eskaini zuten, borrokatua. Aldabe eta Saldias 21-27 aitzinetik izan ziren, baina hogeitazortzina eta hogeita hamarnaberdintzea lortu zuten Barricart eta Larretxeak. Azken txanpan, Saldias oiztarrak aldea egin zuen, sakeari esker (30-35).

Lehen mailako finala ere berdindua izan zen. Zeberio II.ak Urriza bikain ordezkatu zuen eta Joxe Jabier Etxeberria III.a doneztebarrarekin batera, hobeki egokitu ziren Elizondoko frontoira. Hemen ere, 27-20 aitzinetik izan ziren, baina Utergaren erasoei esker, 28-27ra hurbildu zen bikote urdina. Baina Azpirozek pasa bikoitza egin zuen eta Zeberiok eta Etxeberriak finala irabazteko baliatu zuten aukera (35-30).

Finalen eta sari-banaketaren ondotik, bertako produktuen zozketa egin zuten.

Malerrekako pilota txapelketarako izen-ematea zabalik da

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Erreka Elkarteak antolatutako Malerrekako XVIII. eskuz binakako pilota txapelketan izena emateko epea zabaldu dute urriaren 31 arte. 2020ko urtarrilaren erdialdera hasita, zazpi kategoriatan banatuak ariko dira pilotariak: benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak, bigarren mailako seniorrak eta senior elite mailakoak. Guztietan lehiaketa irekia izanen da, helduen bi kategorietan izan ezik, hauetan pilotariak gonbidatu eginen baitituzte.

Kanporaketa moduan jokatuko dute txapelketa eta finalak otsailaren 22an jokatuko dituzte. Izen-ematea posta elektroniko bidez egin daiteke (*salaae@gmail.com*) eta izena emateko orrian, telefonoaren zenbakia eta posta elektronikoa jarri behar dira. Kategoria bakoitzeko, gehienez ere 36 bikote onartuko dituzte.

Benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubenilen partidak igande goizetan jokatuko dituzte eta senior mailakoak, bigarren nahiz elite maileta, asteazken arratsaldetan.

Nafar Kronoeskaladetan azkena larunbat honetan eginen dute Ibardinen

TTIPI-TTAPA BERA

Presoen eskubideen alde, Nafar Erresumako Kronoeskaladak egiten ari dira. Lizarieta, Otsondo, Izpegi, Ibañeta eta Larrainen ondotik, azkena, urriaren 19an, larunbatean, Ibardinen izanen da. «Elkartasun eta bizikletaren festa handia izatea espero dugu!», diote antolatzaileek. Bortz hilabetez 70 txirrindulari mugiarazi dituzte, «euskal presoen sustenguz, batzuk behin bakarrik etorri dira, bertze batzuk bitan, hirutan, lautan eta bertze aunitz bortzetan izan dira». Hasi berriak motibatu dira eta Didier Zago edo Adèle Kerbaol bezalako kirolari handiek parte hartu dute (eta parte hartu duten guztietan irabazi ere egin dute). Finalean, iaz bezala, «Mikel Astarloza txirrindulari ohia, gurekin izanen dugu eta bertze sorpresa batzuk izanen ditugu, oraindik konfirmatzeko daudenak».

Didier Zago kirolari ezaguna, Larraingo maldan goiti. GEORGES SOUBELET

Arpana txapelketa mistoko podioa Igantzin. OSKAR TXOPERENA

Itxaso Onsalok irabazi du arpana txapelketa mistoa

Imanol Kañamares eta Maider Etzezabal izan dira Euskal Herriko txapeldun koxkor biltzen Igantzin

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Hainbat herri-kirol txapelketa erabaki ziren irailaren 28an Igantzin. Nafarroako arpana txapelketa mistoan, Aresoko Itxaso Onsalo eta Beunzako Mikel Eugik pronostikoa bete eta txapela jantzi zuten, laugarren aldiz (2015, 2016, 2018 eta 2019). Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan, Unai Iantzi aniztarra bigarren izan zen gizonezkoetan eta Maika Ariztegi iturendarra bosgarren emakumezkoetan.

Nafarroako arpana txapelketa mistoan, Aresoko Itxaso Onsalo eta Beunzako Mikel Eugi izan ziren bizkorrenak 45 ontzako enborrari hamar epai egiten (4.53). Unai Bertiz sunbildarra eta Iruñeko Esti Gastearena izan ziren bigarrenak (6.42) eta Daniel Saldias arraioztarra eta Antsoaingo Irune Biurrun hirugarrenak (7.33).

Gizonezkoen Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan, bi nafarrak izan ziren trebeenak. Arostegiko Imanol Kañamaresek jantzi zuen txapela (6.23). Bortz segundoko aldea atera zion herritarren babes handia izan zuen Anizko Unai Iantziri (6.28) eta Aritz Ruiz, Artziniagako arabarrak osatu zuen podioa (6.34). Ondotik sailkatu ziren Patrik Saitua (Gautegiz-Arteaga, Bizkaia), Jon Larrañaga (Mendaro, Gipuzkoa), Xabi Vegas (Elgea, Araba), Natxo Gomez (Getxo, Bizkaia) eta Uxer Mozo (Ikaztegieta, Gipuzkoa).

Emakumezkoen Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan, emozio handia izan zen, hiru lehenbizikoen artean bi segundo eskaseko aldea izan baitzen. Maider Etzezabal azpeitiarra izan zen bizkorrena (7.48.69), Eltsoko Ainhoa Iraizoz bigarren hamaika ehunenetara (7.48.80) eta Zuriñe Frutos arabarra hirugarren (7.50). Gernika-Lumoko Irantzu Onaindia izan zen laugarren, hamabotz aldiz txapelduna izana den Maika Ariztegi iturendarra bosgarren eta Muxikako Goizalde Aransolo seigarren.

EHKO KOXKOR TXAP.

SAILKAPENA	
1. Imanol Kañamares (Arost.)	**6.23**
2. Unai Iantzi (Aniz)	**6.28**
3. Aritz Ruiz (Araba)	**6.34**
4. Patrik Saitua (Bizkaia)	**6.40**
5. Jon Larrañaga (Gipuzkoa)	**6.49**
6. Xabi Vegas (Araba)	**6.58**
7. Natxo Gomez (Bizkaia)	**7.01**
8. Uxer Mozo (GIpuzkoa)	**7.30**

SAILKAPENA	
1. Maider Etzezabal (Azpeitia)	**7.48**
2. Ainhoa Iraizoz (Eltso)	**7.49**
3. Zuriñe Frutos (Artziniaga)	**7.50**
4. Irantzu Onaindia (Gernika)	**7.55**
5. Maika Ariztegi (Ituren)	**7.59**
6. Goizalde Aransolo (Muxika)	**8.28**

Euskal Herriko aizkolari txapelketetako finalistak prest

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko lehen mailako eta bigarren mailako aizkolarien txapelketen finalak jokatuko dituzte urriaren 27an Gasteizen eta urriaren 19an Altsasun, hurrenez hurren.

Kanporaketak urriko lehen aste hondarrean jokatu zituzten eta bertan erabaki ziren zein izanen diren finalistak. Lehen mailako kanporaketan Iker Vicente izan zen onena, eta hori pronostikoetan sar zitekeen. Ez, ordea, Aitzol Atutxa, azken bi urteetako txapelduna eta bortz aldiz txapeldun izana, finaletik kanpo gelditzea, bederatzigarren izan baitzen. Vicenterekin batera, Larrañaga, *Txikia IV.a*, Azurmendi, Otaño eta Jon Rekondo leitzarra izanen dira urriaren 27an Gasteizko Iradier Arenan jokatuko den finalean.

Bigarren mailakoan, hiru kanaerdikoak eta 60 ontzako eta 72 ontzako enbor bana mozten bizkorrena Lezaungo Juanjo Lopez izan zen (15.07) eta berekin batera Jon Irazu (15.29) eta Aratz Mugertza (15.53) gipuzkoarrak, Zigako Joxean Etxeberria (16.41) eta Arabako Eloy Corchero (17.24) eta Arkaitz Jauregi (17.25) sailkatu dira urriaren 19an Altsasun jokatuko den finalerako.

Nafarroako zortziko sokatira txapelketan larunbatean hasiko da Beti Gazte

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, urriak 19, abiatuko da Nafarroako zortzinakako sokatira txapelketa Arbizun. Gizonezkoek 600 kiloko kategorian jokatuko dute bakarrik eta Lesakako Beti Gazte izanen da eskualdeko ordezkari bakarra. Berriozar, Antsoain eta Txantrearekin lehiatuko dira lesakarrak. Emakumezkoetan, bi kategoria izanen dira: 520 eta 480 kilokoa. Hauetan ere taldea aterako du Beti Gaztek, Antsoain eta Txantrearekin batera. Txapelketa mistoan (550 kilo, lau emakume eta lau gizonezko), Beti Gazte, Berriozar, Antsoain eta Txantrea lehiatuko dira.

Lehen tiraldiak urriaren 19an, larunbatean, 17:00etan eginen dituzte Arbizun. Gizonezkoen lehen jardunaldia eta emakumezkoen 520 kiloko lehen jardunaldia jokatuko dituzte. Urriaren 26an bi kategoria horietako bigarren jardunaldia jokatu eta txapelak banatuko dituzte Elizondon.

Azaroaren 2an Leitzan, txapelketa mistoko eta emakumeen 480 kiloko lehen jardunaldiak jokatuko dituzte eta azaroaren 9an Lesakan, bi kategoria horietako bigarren jardunaldiak jokatu eta txapelak banatuko dituzte.

Aipatzekoa da 2020an Txinan jokatuko den Munduko Txapelketan parte hartzeko asmoz diru-bilketa kanpaina ere egiten ari dela Beti Gazte.

AGENDA

URRIAK 17 - 31

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IPUIN-KONTALARIA

BERA
'Zuhaitzean hazitako ipuinak'
Liburutegian, urriaren 18an, 18:00etan.

ARANTZA
Haurrentzako kontalaria
Eskolan, urriaren 26an, 17:00etan.

HITZALDIA

ETXALAR
'Bortziriak solasean'
Kultur etxean, urriaren 17an, 19:00etan.

DONEZTEBE
Agenda 21 foroa
Eskolan, urriaren 17an eta azaroaren 7an, 18:30ean.

BERA
Nerabezaroko jarrerei buruzko hitzaldia
Beralandetan, urriaren 22an eta 29an, 17:00etatik 18:30era.

LESAKA
'No sabemos (bien) euskera, ¿cómo podemos ayudarles?'
Udalaren egoitzan, urriaren 29an, 17:00etan.

'U-morez' solasaldia
Erabilera Anitzeko Aretoan, urriaren 18an, 17:30ean.

ARANTZA
'Bortziriak solasean'
Liburutegian, urriaren 24an, 19:00etan.

IKASTAROAK

SUNBILLA
Argazkilaritza ikastaroa
Urriaren 17an eta 24an, 17:30etik 20:00etara.

ARTXIBOKOA

URDAZUBI Kontrabandisten lasterketak
22 kilometro eta 9,5 kilometroko lasterketak
Urriaren 20an, Maratoi Erdia; Bezperean, gau lasterketa.

TAILERRAK

ELIZONDO
Elikadura osasuntsua hizpide
Arizkunenean, urriaren 17an, 21ean, 24an, 28an eta 31n, 17:00etatik 19:00etara.

Musikoterapia tailerra
Arizkunenean, abenduaren 17ra arte, asteartero, 20:00etan.

Autodefentsa tailerra
Arizkunenean, urriaren 19an, 10:00etan eta 16:00etan.

DONEZTEBE
Joskintza tailerra
Azkarretan, astelehenetan, 15:00etatik 16:30era.

Tabakoa uzteko tailerra
Osasun etxean, urriaren 28tik abenduaren 9ra, astelehenetan, 17:30etik 19:00etara.

ARESO
'Erosketa ohiturak aldatuz'
Udaletxean, urriaren 17an.

GOIZUETA
'Berrerabiltze, berreskuratze eta zaharberritze tailer irekia'
Jangelan, azaroaren 8an, 18:00etan.

ARANO
'Berrerabiltze, berreskuratze eta zaharberritze tailer irekia'
Maisuenean, urriaren 31n, 18:00etan.

KONTZERTUA

ETXALAR
Dama beltzak
Kultur etxean, urriaren 18an, 20:00etan.

BERA
Mirua abesbatza
Kultur etxean, urriaren 19an, 19:30ean.

LESAKA
Aiegiko abesbatza
Lesakako Abesbatzak antolatuta.
Elizan, urriaren 19an, 20:00etan hasita.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa
Harriondoan, urriaren 24an, 20:00etan.

ARANTZA
Bankako menditarrak
Eskolan, urriaren 26an, 20:00etan.

DONAMARIA
Malerreka Kantuz
Plazatik abiatuta, 12:00etan.

IKUSKIZUNAK

GOIZUETA
'Emakumeen lurra' dokumentala eta solasaldia
Jangelan, urriaren 25ean, 19:30ean.

'Bakean dagoena bakean utzi' bakarrizketa
Jangelan, urriaren 26an, 19:00etan.

EZKURRA-LEGASA
'Volar' filma
Urriaren 25ean eta 26an, hurrenez hurren.

SUNBILLA
Dantzarien emanaldia
Frontoian, urriaren 29an, 19:30ean.

ARANTZA
'Tabernaria' antzerkia
Zahar Txokon, urriaren 27an, 19:00etan.

LEHIAKETA

ETXALAR
Tortilla lehiaketa
Frontoian, urriaren 19an, 19:30ean.

BERA
Margo lehiaketa
Urriaren 20an, 09:00etan hasita.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

SUNBILLA **Dantzarien emanaldia**

Herriko dantzarien saioa.

Frontoian, urriaren 29an, 19:30ean.

Barazki-opil lehiaketa

Altzateko pilotalekuan, urriaren 26an, 18:30ean.

LESAKA

Argazki lehiaketa

Urriaren 29ra arte.

ELIZONDO

Aire libreko pintura lehiaketa

Azaroaren 3an.

KIROLA

URDAZUBI

Kontrabandisten lasterketa

22 kilometroko ibilbidea.

Urriaren 20an, 10:00etan.

BERA

XXXIX. Lizuniagako Igoera

Urriaren 26an, 17:00etan.

OSPAKIZUNAK

ETXALAR

Usategietako Igandea

Urriaren 20an.

SARA

Usoaren astea

Urriaren 20tik 25era.

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 27an.

LESAKA

Gaztain jatea

Bortzirietako Bertso Eskolak antolatuta.

Basurde elkartean, 19:30ean.

GOIZUETA

Garagardo Festa

Elkartean, urriaren 26an, 21:30etik aurrera. Afarirako txartelak salgai 22ra arte.

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

ERAKUSKETAK

ARESO

Baratze kritikoa erakusketa

Urriaren 18tik 31ra.

Nire aukera

«Lurraren Egunak kultur ekitaldiak eta besta uztartzen ditu»

BITTORI TELLETXEA

Herrigintzan ibilbide luze eta oparoa egin du Bittori Telletxeak. 80ko hamarkadan sartu zen Berako Kultur Batzordean eta ordutik horri lotua bizi da. Batzordeko gainerako kideekin batera «Berako urte osoko kultur programazioa» lantzen aritzen da. Azken aldian, erraterako, urriaren 27an ospatuko duten Lurraren Egunerako prestaketetan dabil. Ongi ezagutzen duen lana da, hasieratik antolakuntzan ibili izan baita: «87an antolatu genuen lehendabizikoz. Eskulangile eta baserritarren erakusketa bat antolatzea pentsatu genuen, egiten zuten lana ikusarazteko eta baserritar eta herritarrak saretzeko». Urtez urte iraun ez ezik

«aberastu» egin den eguna da urri hondarrean ospatzen dutena: «gaur egun 22 eskulangile inguru biltzen dira eta, pixkanaka, ekintza kultural hutsa zena egun kulturala izatera pasatu da». Orain, erakusketaren bueltan, hamaika ekitaldi izaten dituzte: «bezperako barazki-opil lehiaketa eta argazki-erakusketa egiten dugu». Aurten erakusketa «berezia» izanen da ikusgai: «lehen, Berako argazki zaharrak ateratzen genituen; aurten, ordea, Labiaga ikastolakoen eskutik, Aitziber Orkolagaren *Plaketak* argazki erakusketa jarriko dute». Bera Kantarik eta musikariek ere ez dute hutsik eginen. Egunean bertan azoka eta erakusketa ez ezik, gazta eta sagardo lehiaketa ere izanen dituzte: «bisitariek sari-banaketa ikusteko, bertsoak entzuteko eta txarangaren erritmora muxikoak dantzatzeko aukera izanen dute». Taloak jan eta dantzaldian ibiltzeko tartea ere izanen da. Gibeletik prestaketa-lan handia duen arren, «ongi» pasatzen dutela kontatu digu. Are gehiago, Bittori Telletxearentzat «pozgarria» da halako egunak ospatzea eta baserri eta eskulangileen lanari merezi duten lekua ematea: «gero eta guttiago dira baserriak, baina sistema honek aldatu beharko du eta egia erran baratzeetako produktuak orain gehiago estimatzen hasi garela dirudi...». Egun batek ez du «inolaz ere» urte osoan baratzeetan egiten den lana parekatzen baina bada hori estimatzeko keinu bat. Eta gogoan izan keinuz keinu eta pausoz pauso erronka handien jabe egin gaitezke.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Bi lagunendako apartamentua errentan emateko. Bi logela. Irailetik ekainera, astelehenetik ortziralera. ☎948 63 78 62 / 678 85 50 56.

ELIZONDO. Paularenan, pisua errentan emateko. Egoera onean. 2 logela eta egongela handia. 300 euro. ☎679 61 32 01.

ERRENTAN HARTZEKO

DONEZTEBE. Pertsona bat pisu bila, epe luzerako. ☎600 64 34 60.

BAZTAN. Pisua, etxea edo logela errentan hartu nahi dute. ☎606 91 77 49.

SALGAI

BERA. Etxea salgai. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Bixen ostatua errentan emateko. ☎647 82 31 61.

BERTZELAKOAK

BERA. Jubilazioagatik bazarra traspasatzeko. 11 urtez funtzionamenduan. Deitu edo idatzi. ☎652 70 55 56 / *firibarren.bera@gmail.com*.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lurra salgai. Errepide ondoan. ☎628 31 60 81.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Errekalde ostatuan sukaldaria eta zerbitzaria behar dituzte egunero aritzeko eta zerbitzari bat asteburuetarako. ☎679 47 68 90.

BERA. Kafetegi batean zerbitzaria behar dute. ☎608 43 64 54.

Egunero, lanaldi osoan, **saltzailea eta kutxazain** aritzeko langile bila. Ezinbertzekoa frantsesez jakitea. Bidali curriculuma: *beolaetxea@gmail.com*.

IBARDIN. Jatetxe batean laguntzailea behar dute egunero lan egiteko. Bidali curriculuma: *txokoberri@hotmail.com*.

SUNBILLA. Ariztigain kanpinean sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. ☎948 45 05 40 / 660 79 82 49.

ESKARIAK

Emakumezkoa lan bila. Adinduak zaintzen esperientzia. Orduka edo interna aritzeko prest. ☎644 51 33 79.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 — www.erran.eus

744 48 43 61 — info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ELIZONDO inguruan arratsaldetan lan egiteko prest; ostalaritzan, zaintzan edo garbitasunean esperientzia duena. ☎632 84 85 72.

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

SALGAI

Mercedes Vito furgoneta salgai, 2003koa. 112 cdi,122 zaldi eta

274.000 KM. Motorra ona eta ongi zaindua. 6.500 euro. ☎699 37 55 58.

Renault Kangoo salgai. 2009koa. Egoera bikaina. Klimatizagailua, portona, tindatutako kristalak, bola eta gaineko barrak. 5.800 euro negoziagarriak. ☎619 44 44 63.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	4,14
• 1.koa	4,01
• 2.koa	3,87

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	4,25
• 1.koa	4,11
• 2.koa	3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak
• (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

• Urruxak	170,00
• Idixkoak	200,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	150,00
• Idixkoak	170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	3,32/3,42
• Zaldi-behorrak	1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	8,10/8,70
• 8-10 kilokoak:	7,00/7,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo):	55 €
Zerri gizena	1,458 €
Zerramak 0,740€ kg/bizirik	

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (irailaren 27tik urriaren 4ra bitarteko prezioak)

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Artzain txakurrak opari. Arra eta emea. ☎620 13 57 21 / 628 68 28 73.

Arratoi zakurra opari. ☎646 29 85 69.

SALGAI

Setter arrazako bi zakurkume salgai, maiatzaren 15ean sortuak. Gurasoak oilagor ehiztari onak. ☎625 13 77 44.

DENETARIK

OPARITZEKO

Hainbat bideo oparitzeko, VHS formatuan. Besteak beste: *Tasio, El padrino, Platoon, Casablanca, El guateque, Jamón jamón, Anie Hall, La flor de mi secreto, Gandhi, Azul, Nacido el 4 de julio, El piano...* ☎645 70 03 55.

SALGAI

LEITZA. Ate korredera baten egitura salgai. Estreinatu gabea. Prezio onean. ☎619 61 48 96 / 660 85 62 46.

Gaztainondo zuraz egindako **egongelako altzaria** salgai. Luzera 220 cm, zabalera 260 cm eta sakonera 55 cm. Prezioa: 1.500 euro negoziagarriak. Hagitz egoera onean. ☎685 76 44 00.

BERAKO UDALA

HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA HASIERA BATEZ ONESTEA

Berako Udaleko Alkateak, irailaren 20an emandako 243/2019 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen 11. poligonoko 222. partzelaren Hiri-jarduketarako Plan Berezia hasiera batean onestea eta espedientea jendaurrean jartzea hilabete bateko epean, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen denetik hasita.

Iragarkia argitaratu da 2019/10/03ko NAOn (196. zenbakia).

Beran, 2019ko urriaren 3an.
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

HERIOTZAK

- **Beatrice Errandonea**, Sarakoa, irailaren 18an, 56 urte.
- **Louis Zumeaga**, Sarakoa, irailaren 21ean, 63 urte.
- **Francisco Aldaia Indakoetxea**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 26an, 74 urte.
- **Rafael Sanzberro Arretxea**, Berakoa, irailaren 29an, 87 urte.
- **Rafael Eneterreaga Irigoien**, Lesakakoa, irailaren 29an, 76 urte.
- **Josefina Carreras Cervigon**, Donamariakoa, urriaren 1ean, 94 urte
- **Juan Goñi Elizondo**, Arantzakoa, urriaren 2an, 82 urte.
- **Mª Carmen Ugarte Gortari**, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 2an, 95 urte.
- **Saturnino Olano Baraibar**, Leitzakoa, urriaren 4an, 87 urte.
- **Juan Luis Juanotena Aldaia**, Doneztebekoa, urriaren 6an, 79 urte.
- **Nelida Sanjurjo Lizardi**, Lesakakoa, urriaren 7an, 87 urte.
- **Felisa Marco Landa**, Elizondokoa, urriaren 8an.

EZKONTZAK

- **Paul Matxikote** eta **Maeva Etxeberri,** irailaren 21ean Saran.
- **Anthony Bascou** eta **Mayalen Saint-Martin,** irailaren 28an Saran.
- **Xabier Pumar Tainta** eta **Nagore Fachado Cabrejas,** Lesakakoa eta Donostiakoa, irailaren 28an Lesakan.
- **Xabier Iturria Iparragirre** eta **Esther Guruchet Altzugarai,** Arantzakoa eta Lesakakoa, irailaren 28an Lesakan.
- **Jean Baptiste Christian Pau** eta **Sofia Dalmau Deschacht,** Bordelekoak, irailaren 28an Lesakan.
- **Oihan Zabaleta Berra** eta **Svitlana Danchenko,** Lesakakoa eta Ukrainiakoa, urriaren 1ean Lesakan.
- **Paskual Bertiz Baleztena** eta **Maite Larraioz Arano,** Doneztebekoa eta Larraintzarkoa, irailaren 27an Donezteben.

SORTZEAK

- **Irai Urtado Gonzalez**, Igantzikoa, irailaren 21ean.
- **Xabat Telletxea Jaukikoa**, Narbartekoa, urriaren 2an.
- **Endara Maia Etxabide**, Lesakakoa, urriaren 6an.

Ioritz Iguzkiagirre Irigoienek 7 urte beteko ditu urriaren 27an. Aunitz urtez familia guziaren eta batez ere Ainereren partetik! Ongi pasa txabolan!



Arantzako **Aimar Baleztena Goñi**k 2 urte beteko ditu urriaren 29an. Zorionak eta muxu aunitz familia guziaren partetik.

Aunitz urtez Lesakako **Olaia Goienetxe**ri! Mandarra jantzi eta sukaldean aritzeko tenorea ailegatu da! Urriaren 28an pastel goxoa jatera joanen gara. Musu handi bat!

Lesakako **Aiora Goienetxe**k urteak beteko ditu urriaren 28an. Segi, urtez urte, irribarre eder horrekin bazterrak pozez betetzen!

Amaiuko **Goren Mujika Elizalde**k urriaren 6an 2 urte bete ditu. Aunitz urtez eta muxu potolo bat familia guziaren partetik, ez aldatu irrifar polit hori!!

Asier Mutuberria Pagola aranztarrak urteak beteko ditu urriaren 20an. Aunitz urtez gizontxo zure 10. urtebetetzean, muxu bat familiaren partetik! Ongi pasa!

Beintza-Labaiengo **Odei Etxeberria Mielgo**k 4 urte beteko ditu urriaren 17an. Familiaren partetik muxu handia!



Goizuetako **Jose Mª Narbarte** *Tximista*k urriaren 19an 81 urte beteko ditu. Sasoi ederra! Basurdeak ez zaizkizu eskapatzen! Anartz, Elaia, Beñat eta Maider.

Olatz Ibarra Lanz etxeko bollitoak urtea beteko du urriaren 17an. Aunitz-aunitz urtez ama, atta eta Martxelen partetik!! Muxu potolo bat, polita!.



Aunitz urtez **Hegoi**! Dagoeneko 3 urte! Ongi ospatu zure urtebetetzean eta besarkada haundi bat etxekoen partetik!

Haizeder Mariezkurrenak urtea beteko du urriaren 22an. Zorionak eta txokolatezko muxu haundi bat June, Lide eta Izargiren partetik!

Olaia Hita Arangurenek 7 urte beteko ditu urriaren 18an. Aunitz urtez printzesa!!! Ongi pasa zure eguna eta prestatu berendu goxoa. Muxu haundi bat, bereziki Ainararen partetik.

Sunbillako **Anparo Gelbentzu Errandonea** eta **Hegoa Irazoki Urtxegi**k, amatxi eta bilobak, urriaren 30ean eta 22an urteak beteko dituzte. Aunitz urtez familia guztiaren partetik bikote. Ongi ospatu zuen urtebetetze egunak. Muxuak.

OROIGARRIA

Iñaki AZKARRAGA JAIMERENA

Elizondo (Ernautenea) / Bera
2019ko irailaren 22an hil zen, 67 urte zituela

Ernautenean jaioa,
bagordiko mendia
zenuen maite,
zu ziñen gure senar/
atta/aitatxi kuttuna,
betidanik zaindu
gaituena.

Udazkeneko hostoak
erortzearekin batera
zu ere joan zara,
gure bihotzetan utzirik
kristoren hutsuna.
Hauxe duzu bihotzez
gure esker ona eta
azken agurra!!

ZURE EMAZTEA, ALABAK ETA BILOBAK

URTEURRENA

Lino INDAKOTXEA ARIZTEGI

Zubietan, 2009ko urriaren 20an
X. urteurrena

Udazkeneko hostoen antzera joan zinen
eta gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizi garen artean,
ez zaitugu ahaztuko.

ASKO MAITE ZAITUGU!

IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA

OROIGARRIA

Iñaki AZKARRAGA JAIMERENA

Elizondo (Ernautenea) / Bera
2019ko irailaren 22an hil zen, 67 urte zituela

Gure bihotzetan
hutsunea eta samina sentitu arren,
urte guzti hauetan
izan eta erakutsi duzun indarra, poza eta
kemenarekin gelditzen gara.
Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.

ZURE ARREBAK, ANAI-ARREBA POLITIKOAK ETA ILOBAK

OROIGARRIA

Juantxo PETRIRENA OLAETXEA

Urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

PALMADERAKO LANKIDEAK

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70

BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU 365 EGUN | 948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

OROIGARRIA

Rafael ENETERREAGA IRIGOIEN

ANAIA MATTIA!!
Egon ginen azken momentuan zure irriarekin erran zenidan:
«ONGI IBILI!! Eta segituko zaitut argazkien bidez!
Sar itzazu Facebooken, mesedez!»
Zure bizitzako azken momentuetako batean
ikusi omen zenituen argazkiak eta
zure bihotz on horrekin, gozatzen ari nintzela ohartuz,
emozionatu omen zinen...
Orain falta zara, bihotzekoak emanda; hain haundia zenuen...!
Eta nere bihotza desegina utzirik,
eman zenidan agurra betetzen saiatuko naiz,
hori nahiko zenukeela jakinik...
Baina ze gogorra eta iluna egiten ari zaidan zu ikusi ez izana
eta gehiago zure «ongi ibili!» famatua
berriz irakurriko edo adituko ez dudala jakitea...!!
Urruti nintzela UTZI gaituzu, Rafa, baina nere MAITASUNA ETA BIHOTZA
zauden lekuraino ailegatu daitezela!
Ze guttitan erran dizudan zenbat MATTE ZATTUDAN!!
Ziur nago gure attari berriz aposturen bat eginen diozula,
bere alaitasunerako!
Aurpegi bihurria jarriz, ama eta Karmele pixka bat zirikatuko dittuzula,
eta hor dittuzun lagunen artean egonen zarela zure saltsan...
Hemen, Rafa, zure argazkiak tarteka begituko dittut,
eta zuk hortik neriak ikus itzazu!
Milesker neregatik egin duzun guztiagatik!!
MATTE ZATTUT, ANAIA MATTIA! BERRIZ IKUSI ARTE!
BEXARKADA GOXO ETA ESTU BAT!

KONTATU KONTUAK

Aniztarrak Unai Iantzirekin. Irailaren 28an Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa jokatu zuten Igantzin, eta Unai Iantzi aniztarrak bigarren postua eskuratu zuen. Ez zuen animorik falta izan. Gogotik animatu zuten herritarrek Unai, herri erdia Igantzirat joana baitzen bera ikustera. Argazkian Anizko haurrak ageri dira saria eske doalarik, bidea irekitzen.

Bib Gourmand Michelin saria Arotxa eta Donamariako bentarentzat. Sukaldaritza ona arrazoizko prezioan eskaintzeagatik aitortza egiten duen Bib Gourmand Michelin izendapena jaso zuten urriaren 4an Legasako Arotxa eta Donamariako benta jatetxeek Madrilen. Arotxakoen ordezkari Luismi eta Beatrizek hartu zuten sariaren ezaugarri den txaketa eta Donamariako bentako ordezkari Lorea, Haizea eta Xabierrek.

Bertsokabi Sariketa. Urriaren 3an jokatu zen II. Bertsokabi-Eugenio Arraiza Sariketaren lehenbiziko kanporaketa eta urriaren 10ean egitekoa zen bigarrena. Lerro hauek idazterakoan, lehenbiziko saioko emaitzen berri jasoa zuen Ttipi-Ttapak eta horretan Xabat Illarregi (Leitza) eta Aitor Irastortza bikotea nagusitu zen. Hala, urriaren 24an Iruñeko Herriko Tabernan jokatuko den finalerako txartela eskuratua dute. Ortzegun honetan, urriak 17, Mendillorriko Antzara gunean jokatuko da hirugarren eta azken kanporaketa. 19:00etan hasita, hiru bikote hauek ariko dira: Mikel Lasarte eta Sarai Robles, Endika Legarra eta Joanes Illarregi (Leitza), eta Etxahun Azkarraga (Etxalar) eta Patxi Castillo (Bera).

Klima-aldaketaren aurkako mundu grebarekin bat Baztanen. Baztanen oihartzuna izan zuen irailaren 27an egindako mundu mailako greba deialdiak. Irailaren 26an, 60 bat gaztek Elizondoko karriketan barna bizikleta ibilaldia egin zuten eta biharamunean, bertzeak bertze, Lekarozko ikastetxeko eta Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleek geldialdia egin zuten eta Elizondoko plazan elkarretaratzea.

Kontatu, kontatu!

Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidaliguzu argazkia *info@ttipi.eus* helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira.

Julian Iantzi Onddo eta Zizen kofrade. 26. aldiz Nafarroako Onddo eta Zizen Egun handia ospatu zuten urriaren 6an Elgorriagan. Urtero bezala, hainbat kofrade izendatu zituzten eta horien artean, Julian Iantzi telebista aurkezle lesakarra.

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI

ITZALA

Zein da mamuaren itzal zuzena?



Itzal zuzena da: _____

SUDOKUA

Osa ezazu sudokua IZUA hitzak dituen hizkiekin.

	I		Z
		I	
	U		
A		U	

Osa ezazu sudokua BELTZA hitzak dituen hizkiekin.

	T	L	E	Z	A
			T		
T		E			Z
Z			L		E
		T	B		
	E	B	Z	A	

INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Egilea: **Garbine Ubeda (Aiurri)**

ZU BAI HAMALAU!

Bi irudi hauen artean hamahiru alde daude. Ikusten al dituzu?

1 .....

2 .....

3 .....

4 .....

5 .....

6 .....

7 .....

8 .....

9 .....

10 .....

11 .....

12 .....

13 .....

ENGAINAGARRIAK

ONGI

___ ___ ___ ___

ENGAINARRIAK

___ ___ ___

___ ___

Zati hauetariko lau ondoko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainarriak dira, hau da, hagitz antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

Egun guztian zehar, taloak, jaki eta edari dastatzeak
Goizeko 8:00etatik 9,00 arte Erakusketarako barazkiak Ilekueta aldean dagoen Merkaturako Plazara, ekarri behar dire.
Gaztak eta sagardoak R. Baroja Eskolara goizeko 10:00 tarako

Urriaren 26 Larunbata:

Arratsaldean: Ttikien Lasterketa, Lizuniagako igoera Lasterka, Labiaga ikastolan "Plaketak" argazki erakusketa.

Alzateko Frontoian: Opil Lehiaketa, Bera Kantari eta musikariak. **20:00tan** Trikitilariak.

Urriaren 27 Igandea:

Goizeko 10:00tan (Alzaten) Eskulangileen eta Elikadura Azoka, Barazki Erakusketa, Olakoren Erakusketa, Tailerrak.

Eszenatokian: Txalaparta, Txistulariak, Irats trikitilariak.

11:00tan (R.Baroja eskolan) Bortzirietako 33.Gasna Lehiaketa eta BERA eskolako trikitilariak

Eguerdian, Karnaxenean, 22.Sagardo Lehiaketa,Musika Eskolako Txistularien,Trikitilarien, Talde instrumentalaren eta Bandaren kalejira.

Arratsaldeko 16.30tan: Bertsolariak zuzendutako sari banaketa, Muxikoak Kuxkuxtu txarangarekin, Dantzaldia OHARKABE taldearekin